KULTURA
KOLORETAN
2020KO KULTURA PROGRAMAZIOA
www.bilbaokultura.eus
Bilbao

Azken urteotan, urian ekintza kulturalak areagotu egin dira; eztanda kultural handia gertatu da Bilbon, kolore guztiekin zipriztindua.

Esku artean daukazun liburuan Bilboko kultur ekimen nagusiak ikus ditzakezu. Horrela, informazioa eskaini gura dizugu, zeure egun bakoitzari kolore bat eman diezaiozun. Bilduma honetan, antzerki, zinema, musika eta multimedia jaialdiak, lehiaketak, literatur jardunaldiak, arte jarduerak, dibulgazio ekintzak, ondarearen sustapena, sormeneko ikastaro eta tailerrak, deialdiak eta lehiaketak aurkituko dituzu. Hori guztia, kolore sorta zabal batean, kultura eta aisia herritar guztiei hurbiltzeko asmoz.

Egitaraua 9 tonalitate handitan sailkatu dezakegu, kolore hotzetatik beroetara:

- ARTE ESZENIKOAK 4
- MUSEOAK..... 10
- ARTE BISUALAK ETA DISEINUA 14
- LITERATURA ETA EZAGUTZA..... 20
- IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK... 26
- MUSIKA 32
- ONDAREA ETA IDENTITATEA 36
- JAIAK ETA AISIA..... 40
- HURBILEKO KULTURA AUZOETAN,..... 42

Bederatzi kolore, gure hiriaren kultur eskaintza ikusgarria, tonu ertainez betea, laburtzeko eta antolatzeko helburuz.

Arte Eszenikoak

Emozio eta sormen izpiz bustiko da hiria

ARRIAGA ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak **130 urte** beteko ditu 2020an. Efemeride hori bere filosofiaren arabera ospatuko du, hau da, lehen mailako programazio eszenikoa eskainiz. Denetarik egongo da: antzerkia, musika, dantza, opera... arte eszeniko guztiak egongo dira ordezkatuta. Eta noski, **bere ekoizpeneko lanak** aipatu behar dira bereziki. Urte berri honetan Bertolt Brecht, Kurt Weill eta Orlando di Lasso egileen obretan oinarritutako lanak taularatuko dira, baita Beethovenen omenezko batzuk ere, bere jaiotzaren 250. urteurrena izango baita. Arriaga Antzokiaren 2020ko egitarauaren ezaugarri nagusiak, beraz, honako hauek izango dira: tokiko talentuaren aldeko apustua; inguruko kultur entitateekiko elkarlana, hala nola OLBE (Opera Txiki programa); Europako kultur mugimenduekin ezarritako sinergiak, hala nola **Calixto Bieito** zuzendari artistikoaren bidez landutakoa, eta abar.

CAMPOS ELISEOS ANTZOKIA

2020an ere, Campos Eliseos Antzokiak gustu guztietarako programazioa eskainiko du, Bilbon dauden kultur beharrizan guztiak asetzen saiatzeko. Barreak? Campos Comedy. Musika? Jazza, diskoen aurkezpenak, musika klasikoa... Harridura? Magia ikuskizunak. Emozioa? Akrobaziak eta zirkua! Eta hori gutxi balitz, bigarren urtez jarraian, Campos antzokiak **KUPULA BILBAO ZIKLOA** ospatuko du, Udalarekin elkarlanean. Hiribilduko egile, zuzendari, antzezle eta bestelako profesional eszenikoen lana sustatzearren.

EUSKALDUNA JAUREGIA

Musika eta Kongresuetarako Euskalduna Jauregia, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoa baita, era askotako erabileretarako gune handi bat da, 58.000 m2-koa. Euskalduna ontziola zegoen lekuan dago kokatuta. Arkitekturaren ikuspegitik, etengabe eraikitzen ari den itsasontzi bat dirudi, XXI. mendeko Bilbo berriaren ikur nagusietako bat. Han gauzatzen da **OLBEren** Opera Denboraldia, Europako eta Estatuko garrantzitsuenetako eta ospetsuenetako bat, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak **(BOS)** ere han du egoitza. Halaber, urte osoan antzerki, musika eta erakusketa programazio zabala eskaintzen du, eta enpresa, ekonomia eta gizarte arloetako ekitaldi garrantzitsuak ere han egiten dira.

AZKUNA ZENTROA BILBOKO ALONDEGIA

Kultur eta Gizarte Garaikidearen Bilboko Zentroa. Tokiko eta nazioarte mailako ikuspegia dauka, eta era bateko eta besteko ikusle-komunitateekiko elkarrizketarako irekia. Leku bat da, kultura praktika, prozesu, eta esperientzietarako eremu gisa bizitzeko.

Dantza eta Forma Eszeniko Berrien atalean, martxoan Álex Rigola artistaren ikuskizuna nabarmentzen da: indarkeria matxistaren gaitzaren aurpegi batzuk eta besteak erakutsiko dira, horren bidez. Bestalde, maiatzean **PROTOTIPOAK** delakoa izango dugu, Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketa, testuinguru artistiko eta sozial berriak behar dituen proposamenen paradigma.

BBK SALA

On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusian kokatuta dago, eta hiri-kulturari zabalkundea emateko gune ireki bat da. Handik, BBK-k (erakunde horrena baita) kultura bultzatu eta sustatzeko lan egiten du, **kalitatezko, era askotako eta guztientzako** programazio baten bidez. Aretoan jazza, fadoa, flamenkoa edota rock-and-rolla entzun daitezke, eta euskal kultura bizi; trikitia eta txalaparta jotzen dira; gure bertsolarien errima zirtolariak ere entzun daitezke. Antzerkia, poesia, zinema eta erakusketak ikus daitezke. Mendiaz, itsasoaz, lurraz, unibertsoaz, magiaz, bizitzaz eta barreaz hitz egiten da, besteak beste. Zalantzarik gabe, kokaleku bitxia da Bilboko kultura esparruan, formatu-aukera ugari eskaintzen dituena eta denentzat zabalik dagoena.

6 PABILIOIA

Espazio honek arte eszenikoen, dantzaren eta antzerkiaren munduko pertsonak elkartzen ditu, sinergiei bide emateko eta autogestio partekatua gauzatzeko. Hartara, sortzaileak berak dira euren lanen zabalkundea kudeatzen dutenak, publikoaren, ikus-entzuleen eta proiektuaren bazkideen laguntza bilatuta.

2020an, urteko asteburu guztietan emanaldien aldeko apustu egiten jarraituko da, 6 Pabilioiko **Antzerki Laborategiaren** ekoizpen propio sortu berriekin, **Konpainia Gaztearen** lan berriarekin eta **Antzerki Arineko Jardunaldi** arrakastatsuekin. Azken horietan, ohikoak ez diren guneetarako hautatutako antzerki laburreko pieza originalak erakusten dira.

ABAO-OLBE BILBAO OPERA

Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen (OLBE) **68. Denboraldia** da Euskadi, estatu eta nazioarte mailako kulturako proposamen artistiko onenetako bat, kultur jarduerei eta programazio lirikoari esker. 2020an, honako hauek izango dira Euskalduna jauregian: Der Fliegende Holländer (urtarrilak 18-27) eta La fanciulla del West (otsailak 15-24) operak, azken hori Bilbon estreinatzen delarik; Rossini kontzertua, Giovanna d´Arco eta Stabat Matter lanen estreinaldiekin (apirilaren 25a); eta Anna Bolena (maiatzak 16-25). Egitaraua osatzeko, bi hitzaldi-sorta izango dira: Opera Bihotzetik, DeustoForum-en, eta operaren ABC-a, Arte Ederren Museoan. Gainera, **Olbe Txikiren hiru ikuskizun** izango dira urtarrila, otsaila eta maiatzean, Arriaga Antzokian, familian operaz gozatu ahal izateko prestatuak, eta Sozietate Filarmoniaren lau kontzertu, maiatza eta ekainean.

ACT

ESZENA BERRIAREN NAZIOARTEKO XVII. JAIALDIA

EKAINAREN 3TIK 6RA

ACT Jaialdiak nazioarteko artista berrien lana sustatu nahi du. Proposamen berritzaileen bidez, etorkizuneko eszena definitzen ari diren artistak dira. Lau egunez, **arte biziak** landuko dira, formatu laburraren aldeko apustua eginez. Gehienez ere 30 minutuko 3 edo 4 piezako saioak egingo dira: dantza, zirkua, performancea edo antzerki testuala.

Programa osatzeko, lantegiak eta hitzaldiak izango dira sektoreko adituen eskutik, eta ACTmosfera saioekin. Horietan, programatzaileek, artistek eta ikusleek elkarrekin egoteko aukera izango dute, lanei buruz hitz egiteko. **BAI Antzerki Eskolak** antolatuta, jaialdiaren hiru agertokietan: Guggenheim Bilbao Museoa, Kafe Antzokia eta Teatro Barakaldo.

BILBOKO KALEALDIA

KALEKO ANTZERKIEN NAZIOARTEKO XXI. JAIALDIA

EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 4RA

Bilboko Udalak antolatzen duen kaleko arteen erakusketa honek, Alde Zaharrean eta Casilda Iturrizar Parkearen inguruan, **kaleko arte eszenikoen arloan** nazioarteko eta Estatuko talde esanguratsuenetako batzuen proposamen berritzaileenak biltzen ditu, bertako konpainien azken lanekin batera, zirku, dantza, musika, clown, kalejira eta abarretako emanaldiekin.

BAD-BILBAO ANTZERKI DANTZA

BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIKIDEAREN XXII. JAIALDIA

URRIAREN 15ETIK 25ERA

Gaur egungo eszenako elementu **abangoardista** eta berritzaileenak erakutsiko dira hiriko zenbait gunetan egingo diren nazioarteko, Estatuko eta bertako antzerki eta dantza eta dramaturgia berrietako konpainien ikuskizunen estreinaldien bidez. Era berean, topaketarako, prestakuntzarako eta gogoeta eszenikorako elkargunea ere izango da, mahai inguruen, hitzaldien eta lantegien bidez.

PYRENART

EGEFek (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa) diruz lagundutako mugaz gaindiko lankidetzarako proiektu bat da, eta Pirinioetako arte eszenikoen arloko profesionalen nazioartekotzea sustatzeko asmoa dauka. Pirinioen bi aldeetako 9 bazkidek osatutako sare bat da, eta Bilboko Udalak antolatutako BAD Jaialdia du bazkideetako bat. Pyrenart 3 urtetan zehar garatzen da, eta lau mailatan laguntzen du: prestakuntza, sareko lana, koprodukzioa eta Pirinio aldeko artelanen zirkulazioa.

KARRIKAN

Euskal Herriko (Hegoalde eta Iparralde) zazpi entitate bazkide dituen plataforma bat da; Bilboko Udala, haien artean.

Karrikan plataformaren l**aguntzen 5. edizioaren** deialdia udaberrian egingo da, konpainia, talde eta artista berrien edota profesional bihurtzeko bidean daudenen sorkuntza originalei laguntzeko asmoz. Espazio publikoetan lan egiten duten Euskal Herri osoko (Hegoalde eta Iparralde) artistei zuzenduta dago.



BILBAOESZENA

BALIABIDE ESZENIKOEN GUNEA

Sorkuntza, prestakuntza eta ekoizpen eszenikorako **udal gunea** da, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu: aretoak lagatzea, talde hasiberrientzako laguntza, haurrentzako eta gazteentzako antzerki-ikastaroak, oinarrizkoak helduentzat eta espezializatuak artistentzat.

HARROBIA

BILBO-OTXARKOAGAKO EKOIZPEN ESZENIKORAKO BERRIKUNTZA ZENTROA

Udal jabetzako zentro hau Harrobiak kudeatzen du (ekoizpen eszenikoaren berrikuntzarako elkartea), eta hauek guztiak eskaintzen zaizkie arte eszenikoetako talde eta artistei: antzerkirako eta dantzarako entrenamendu-guneak, maila artistiko eta teknikoan ikuskizun eszenikoak **ekoizteko prestakuntza** profesionala, antzerki-ikerketarako proiektuak eta berrikuntza proiektuak, eta egoitza artistikoak.

BILBO UMEENTZAKO ANTZERKIA

IKASTURTEAN ZEHAR

BILBON ESKOLATIK ANTZERKIRA

Mitusu Elkarteak antolatzen du Udalarekin batera. Bilboko ikastetxeetako ikasleentzako antzerki eta dantza emanaldien kanpaina bat da, eta leku hauetan izango dira emanaldiak: Campos Antzokian, Bilborocken, Azkuna Zentroan eta San Frantzisko eta Otxarkoagako udaltegietan. Arte Eszenikoen etorkizunaren aldeko apustu bat da. Dagoeneko 26 urte bete dituen programa honek, eta, iaz, esate baterako, **5.000 haur eta gaztek** parte hartu zuten.

ESKOLAKO ANTZERKI LEHIAKETA

Arte eszenikoen haztegia bultzatzearren, Udalak antzerki-emanaldien lehiaketa hau bultzatzen du: Bilboko ikastetxeetan sortutako **antzerki-emanaldien** lehiaketa da, eta ekainean amaitzen da, hautatutako antzezlanen azken emanaldi bat egiten delarik Arriaga antzokian, sariak banatzearen kariaz.

BILBAO TX

TXOTXONGILOEN NAZIOARTEKO 39. LEHIAKETA BILBON

AZAROA

Urtero legez, **txotxongiloak** eta objektu bizidunak Bilboz jabetzeko biziberrituko dira. Azaroko hitzordu hutsezina familia eta umeentzat, hainbat herrialdetatik etorriko diren proposamen artistiko berriekin. Teknika eta estetika aukera zabala batzen duten ikuskizunekin harritzeko eta gozatzeko abagunea izango dugu: hasi harizko txotxongiloen tradiziotik, eta arte honetako molde garaikideenetaraino.

ARTISTENTZAKO EGONALDIAK

OTSAILEAN IREKITA EGONGO DA DEIALDIA

Sormenezko prozesu eszenikoei laguntzeko **beka-programa** bat da. Euskadiko artistentzat nahiz entitateentzat da. Beraren bidez, sormen proiektuak garatzeko baliabide ekonomikoak, instalazioak, baliabide teknikoak eta bide-laguntza eskaintzen dira.

LA FUNDICIÓN

Aitzindaria izan zen 80ko hamarkadan, eta 30 urte daramatza arte eszenikoen eta joera berrien arloan lan egiten, tokiko, estatuko eta nazioarteko ikuspegi batetik. Sormenezko unibertso honetan, sortzaileek eta ikus-entzuleek bat egiten dute. Gainera, euskal artistei lagundu egiten die sortzeko, hedatzeko, mugitzeko eta nazioartekotzeko beren prozesuetan, merkatu-aukera eta aukera profesional berriak sortuz eta esploratuz. Hori guztia programa hauen bidez:

- Urteko **denboraldia**, antzerki, dantza eta performancearen munduko 40 talderekin; sorkuntzarako egonaldiak; topaketak sortzaileekin; tailerrak; truke-proiektuak euskal konpainientzat, eta abar.
- **Dantzaldia**, udazkenean hiri osora eta bereziki gune nabarmenenetara hedatzen den nazioarteko erakustaldia.
- **Lekuz leku,** dantza pieza laburren nazioarteko jaialdia.

ZAWP ETA HACERIA ARETOA

ZWAP (Zorrotzaurre Art Work in Progress) kultur mugimenduak **Erribera-Zorrotzaurre** uharteko eremuaren hiri eraldaketari ikuspegi artistiko, sortzaile eta berritzailea eman nahi dio. 2008an sortua Haceria Arteak elkartearen eskutik, auzo horien hirigintza plana garatu "bitartean" aukerak sortzeko bokazioarekin jaio zen, suspertze sozial, ekonomiazko eta kulturazkoa lortzeko.

ZAWP EREMU BERRIAK: ZAWP eta HACERIA Aretoa eremu zaharrak eraitsita, uhartearen erdigunera mugitu ginen, **"bitarteko"** filosofiarekin jarraitzeko. **La Nave Va [LNV]** izeneko eremua leku ezin hobea da zure proiektuak martxan jartzeko. Coworking eremua baino gehiago, wordliving eremua dela esan dezakegu, eta lana eta bizitzaren arteko anbiguotasuna gainditzea lortzen dugu, oreka desiratua lortuz. Ekitaldi txikietarako espazio eszenikoa ere badago, hala nola aurkezpen, erakusketa eta prestakuntza-saioetarako.

La Terminal [LT] izenekoa 2.500 m2-ko nabe bat da, LNV izenekoaren eta bertako "zawper" edo eskifaiaren osagarri, eta edozein ekitaldi eta/edo ikuskizun mota gauza daiteke han. Jardunaldiak, aurkezpenak, jaialdiak, merkatuak, grabaketak, erakusketak, ekitaldi pribatuak, hitzaldiak...

ZIRKOZAURRE

Zorrotzaurren kokatua dago. Z**irkuko arteen sorkuntzako gune** bakarra da prestakuntza, sorkuntzarako egonaldiak, ekoizpen propioak eta proiektu artistikoen bitartekotza eskaintzen dituena, profesional zein amateurrentzat, eta, oro har, herritarrentzat. Hiru arlo horietan eraginez, zirkuaren sektorea profesionalizatzea du helburu.

Museoak

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arte erromanikotik hasi eta lehen abangoardia eta haien adar garaikideetaraino, Bilboko Arte Ederren Museoak ibilbide bat eskaintzen du **XIII. mendetik XX. menderainoko artearen** artista, estilo eta eskola nagusietan zehar. Euskal artea da, gainera, bildumaren bereizgarri nagusietako bat.

Museoak aldi baterako erakusketa programa zabala ere proposatzen du. 2020an, Vicente Ameztoy margolariaren inguruko atzera begirako ikuspegia nabarmenduko da. Gainera, Aureliano de Beruete eta Darío de Regoyosen paisaiak egongo dira erakusgai, Félix Fernández Valdésen bildumari hurbilpen historikoa egingo zaio, eta Patricia Phelps de Cisneros Bilduman Latinoamerikako paisaia nola irudikatzen den ikusteko aukera izango da.

BERREGINEN MUSEOA

Bilboren erdiguneko eliza zahar batean kokatua, museoak antzinateko eskultura ospetsuenetako batzuen erreprodukzioak erakusten ditu. Urteko programazioa kultura zabaltzera bideratzen du **ikuspuntu hezitzaile batetik,** bai aldi baterako erakusketen bidez -erakundearen funtsak abiapuntu hartuta sortuak-, bai urte osorako eta ikuslego zabal batentzat programatutako zenbait jardueraren bidez ere. Jarduera horien artean, hauek nabarmentzen dira: "Lana bere testuinguruan" izeneko hileroko hitzaldien zikloa, Swing Museoan hilero izaten den dantzarekiko hitzordua, Manuel Balsa "El Ruso" aire zabaleko akuarela lehiaketa (ekaineko lehen asteburuan), Gabonetako haurrentzako tailerrak urteko azken astean, Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartzea, Museoen Nazioarteko Eguna, Liburuaren Eguna edota San Balendin eguna.

Oraintsu, jarduera-eskaintza zabal horri gehitzeko, **Mariaren Bihotza plazako aztarnategia i**reki da eta bertan publikoak Bilboko bi eraikin historiko garrantzitsuren aztarnak aurkitu ahal ditu: San Frantzisko Komentuarenak eta Don Alfontso printzearen Kuartelarenak.

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Museo hau Bilboren ikur adierazgarrienetako bat da. 2020rako, gure sasoiko figura ezinbesteko batzuei eskainitako erakusketak daude aurreikusita, hala nola El Anatsui, Richard Artschwager, Lygia Clark, Olafur Eliasson, Lee Krasner edo Lynette Yiadom-Boakye. Gainera, William Kentridge, Isaac Julien eta Alex Reynoldsen bideo-instalazioak izango dira Film & Video Aretoan. Horretaz gain, **"hogeiko hamarkada zoroan"** landutako sorkuntzari eskainitako erakusketa bat izango eskainiko da programazioan, Berlin eta Paris izango dituelarik ardatz, eta **Vasily Kandinskyren** lanek presentzia berezia izango dute, Guggenheim Fundazioarekin sinatutako Kudeaketa Akordioa berriztatzearen ondoriozko biurteko erakusketen parte moduan. Artista horren pieza-sorta berezi bat ere izango dugu, orain arte Bilbon ikusi gabea.

ITSASMUSEUM BILBAO

Bilboko itsasadarrean zehar hedatzen zen **itsas kultura** ezagutzen hasteko abiapuntu egokiena dugu hau, Bilbok eta Bizkaiak itsasoarekin izandako harreman estuaren fruitu diren nortasuna eta tradizioak deskubritzeko.

Eremu dinamikoa eta parte-hartzailea da. Adin guztietako pertsonentzako erakusketa eta jarduerak eskaintzen ditu.

Bisita kanpoaldean has daiteke. Bertan daude 150 urte baino gehiagoko dikeak, bildumaren parte diren ontzietako batzuk, ponpa-etxea eta Karola garabi ospetsua, beste elementu batzuen artean. Ibilbidea barruko aldean jarrai dezakegu, Bilboko eta Bizkaiko itsas historia ezagutzeko. Horretarako, hainbat objektu, artelan eta baliabide teknologiko eta interaktibo izango ditugu eskura.

Gainera, Itsasmuseum museoak **Port Center** delakoa ere eskaintzen du, Bilboko portuaren jardueraren berri herritar guztiei emateko. **Erain proiektua** ere hor dago: XX. Mendeko Bizkaiko erriberako arotzen lanbidea berreskuratzea duena xede; horretarako, erakusketa, lantegi antzeztuak eta dikeetako ontziak baliatzen dira.

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

Alde Zaharraren bihotzean, XVII. mendeko eraikin batean dago: Jesusen Lagundiaren San Andres ikastetxea eta eliza izan zen eraikin batean, hain zuzen. Gaurko Bilboko Euskal Museoa iraganarekiko, historiarekiko eta tradizioarekiko interesaren emaitza da, eta, orobat, interes publiko orokorraren alde eginez, objektu eta lekukotasun historiko eta artistikoak berreskuratu, iraunarazi eta babesteko sentsibilitatearen emaitza. Erakusketa iraunkorraz gain, Euskal Museoak beste hauek ere eskaintzen ditu: aldi baterako erakusketak, zineforum zikloa, hitzaldiak eta haurrentzako tailerrak. Gainera, Ondarearen Europako Jardunaldietan, Museoen Nazioarteko Egunean, eta Santa Ageda eta San Tomas egunetan parte hartzen du. Bestalde, bere **klaustro** oraintsu berrituan, Basque Fest eta Gau Zuria jaialdiak ospatzen dira, eta Bilboko Erraldoi eta Buruhandiak biltzen dira han udako hilabeteetan, beste jarduera kultural batzuen artean.

BIZKAIKO ARKEOLOGIA MUSEOA

Museo hau Foru Aldundiak sustatzen du, eta Bizkaiko **arkeologia-ikerketen erreferentziazko zentroa** eta zabalkundea egiteko kanala da, jarduera anitzen bidez, zeintzuen helburua baita lurraldearen historiaren ezagutza zabaltzea, arkeologia ikasketak bultzatzea, eta arkeologia-materialen gordailua, jagotea eta zaharberritzea bermatzea. Museoaren erakusketa iraunkorraren bidez, gure lurraldeko giza bizitzaren hasieratik oraintsu arteko bidaia egiteko aukera izango dugu; hau da, 100.000 urteko tarte historikoa hartzen duen ibilbidea.



ELEIZ MUSEOA

Bilboko museoen barruan, **erlijio-arteak** ere badu bere lekua. XVI. mendeko komentu batean kokatua, Atxuri auzoan, Eleiz Museoak Bizkaiko piezen bilduma zabal bat dauka, kronologikoki banatuta, erlijio-arte horren bilakaera ikusteko aukera ematen duena, erromanikotik hasi eta arte garaikidera arte iritsita.

Urtero, abenduan, jaiotzen erakusketa bat bisitatu daiteke, bai Bizkaiko elizetako antzinako jaiotzak (XVI. eta XIX. mendeen artekoak), bai bost kontinenteetatik ekarritakoak, eskuz egindakoak. Gainera, klausurako mojek egindako gozokien erakusketa eta salerosketa gune bat ere badago.

Eta museoen arloko berritasun moduan, **Atxuriko abadia** delakoa izango dugu, IHESGELA bat, Museoko gelen artean garatuko den istorio bat, abentura bat, non parte hartzaileek komentuko fraideak hiltzen ari den pozoiaren kontra-pozoia aurkitu beharko duten.

PAUSOEN MUSEOA

Bilboko Hiriko Penitentzia Kofradien Anaidiak **"La Burrería"** udalaren eraikin zaharrean, Iturribide kale ezagunean, Pausoen Museoa jarri zuen abian, gure Hiriko **Aste Santuaren historia** azaltzen duen ikusmen-narratiba egiteko eta duen arte- eta erlijio-ondarea ezagutarazteko helburuekin. Halaber, Gabonetan, jaiotzen erakusketa egiten du, eta bisitari ugari izaten ditu.

Arte Bisualak, Diseinua

Tonalitate tradizionalenetatik apurtzaileenetaraino

BILBAOARTE FUNDAZIOA

Arte ekoizpenerako udal zentroa. Proiektu artistikoak bideratzeko instalazioak, tresnak eta aholkularitza teknikoa eskaintzen ditu. Gainera, kultur jarduera ugari ere antolatzen dira. Ekoizpenerako lau tailer ditu: Grabatua eta serigrafia; argazki, bideo eta inprimaketa; eskultura, zeramika eta eraikuntza; eta fabrikazio digitala, laserra eta 3D inprimatzea. Zentroa osatzeko, **Urazurrutia Aretoa, Art House Zinema aretoa eta Kristalezko Patioa** izeneko aretoak daude. Horietan, hitzaldiak, proiekzioak, ikuskizunak eta ikastaroak egiten dira, eta artistentzako 12 estudio ere badaude.

Honako hauek antolatzen dira BilbaoArte eremuan:

- Ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak, nazio eta nazioarte mailako sortzaileen parte-hartzearekin.
- Artista gazte garaikideen erakusketak, banakakoak zein taldekoak, bertako erakusketa aretoan.
- Zinema zikloak eta hainbat jaialdirekiko kolaborazioak: ZINEGOAK, Zinetika, LAN eta Bideodromoa.
- Mugikortasun programak nazio eta nazioarte mailako beste zentro batzuekin.
- Erakundeen proiektuak garatzeko aholkularitza artistikoa.
- Era berean, BBK erakundearekin elkarlanean, BilbaoArte Fundazioak hainbat deialdi antolatzen ditu beka programarako: 2.000 eta 5.500 euro arteko laguntzak, estudioen lagapena eta ostatua.

OPEN ESPAZIOA

Zorrotzaurren kokatua, Artiach lantegi zaharrean, **kultura garaikidearen eta ondarearen arteko elkargune bat** da, herritar guztiei irekia, Silo kafetegia eta Bilboko Lorategi Sekretua espazioari esker. Kultura garaikidearen, teknologia eta gai sozialen arteko sinergiak lantzen dira, teknologiaren bidez eta sormen eta kultur industriak garatuz, erakunde publiko eta pribatuentzat. Zorrotzaurreko instalazioetan, arte, sorkuntza eta diseinu arloko tokiko artista gazteen topaketak egiten dira hilero, **Open Your Sormena** (hilabete bakoitzeko bigarren larunbata); bigarren eskuko eta ekonomia zirkularreko merkatua, **Open Your Ganbara** (igandero); eta **Fab Lab Bilbao** sorkuntza eta kultura digitaleko zentroak antolatzen duen asteroko programazioa. Azken horren barruan daude **Egingura** prestakuntza programa (hilero), sorkuntza eta fabrikazio digitalerako; arte eta teknologia arloko **Maker Ekintzaile Sorkuntza Egonaldiak, eta teknologia sortzaileen Nazioarteko Jaialdia, Maker Faire Bilbao.**

AZKUNA ZENTROA BILBOKO ALONDEGIA

Zentro honek arte bizien eta erakusketa-arteen inguruko sorkuntza eta ikerketa sustatzeko hainbat ekimen garatzen ditu. Helburu nagusia artelanen produkzioa bultzatzea eta jendearengana gerturatzea da.

Erakusketa eta arte bisualen programan, otsailetik maiatzera, **Steve Paxton** dantzari eta koreografo estatubatuarraren lanari eskainitakoa nabarmendu behar dugu. Osagarri moduan, bertako dantzari eta dantza zentroekin landutako performance, tailer eta lanak izango dira, erakusketa aretoa dantza-estudio bihurtzeko asmoz.

Ekainetik irailera, **Ana Laura Aláezek** "Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío" ekimena proposatuko du, erakusketa bat, non gure nazioarteko artista honen lanak biltzen baitira.

Gainera, terrazan, Nestor Lizalderen parte-hartzea izango dugu, Aquelarre eléctrico proiektuarekin.

CFC

ARGAZKILARITZA GARAIKIDEAREN ZENTROA

Los Viernes del CFC delakoa Bilboko plataforma berezi bat da. Urte osoan zehar ikus-entzunezko proiekzioak eta solasaldiak antolatzen ditu adin guztietako jendearentzat. Helburua da ikasle, zale eta pertsona guztien artean argazkilaritzaren munduko egile, komisario eta teorikoak ezagutaraztea. Joan Fontcuberta, Alberto García Alix, Alberto Anaut, Carlos Gollonet, Laia Abril, Simon Norfolk, Jon Cazenave, Aitor Ortiz, Cristina de Middel, Antoine D´Agata, eta abar dira orain arte gonbidatutako profesionaletako batzuk. Hitzaldiak ostiraletan izaten dira, 19:30etik 21:00etara, Zabalgune Eraikineko Erakusketa Aretoan.

ARTESHOP

UZTAILEKO 1. HAMABOSTALDIA

Bilbao Ekintzak, BilbaoArte Fundazioarekin eta EHUko Arte Ederren Fakultatearekin, Bilbao Ekintzak programa honen 10. edizioa antolatuko du, **merkataritza eta arte** jardueren arteko sinergia aprobetxatuz, merkataritzan sormena sustatuz, adierazpen artistikorako ezohiko eremua sortuz eta kolorez beteriko erosketa esperientzia marraztuz. Udalerriko saltokiek, hala, Arte Ederretako Fakultateko ikasleek beren-beregi egindako artelanak erakutsiko dituzte. Halaber, BilbaoArte Fundazioko artistek euren interbentzio artistikoak egingo dituzte Bilboko toki esanguratsuetan.

MEM

MUSICAEXMACHINA

AZAROA

Nazioarteari begiratzen dion A**rte Esperimentalaren jaialdia.** Dantza, musika, performance, arte eszenikoak, pintura, eskultura, marrazketa, instalazioa, new media, soinu-artea, net-art, argitalpenak, zinema, bideoak, argazkiak eta abar lantzen dira.

MEM jaialdiaren oinarri nagusietako bat diziplina aniztasuna da. Abangoardiako proiektu harrigarrien bidez, nazioarteko eta tokiko osagaiak uztartzen ditu, eta artista parte-hartzaileen arteko harremana bideratzen du. Gainera, sortzaileen eta publikoaren arteko topaketa ere sustatzen da.

BASQUEDOK FESTIVAL

URRIAREN 22TIK 25ERA

Argazkigintza dokumentalaren jaialdia, erakusten dituena gaur egun bertan eta nazioartean dauden era bateko eta besteko begirada eta errealitateak. Hitzaldi eta tailer praktikoen bidez, dokumental argazkilaritzaren inguruko hausnarketa bat planteatzen du: Aurre egin beharreko erronka berriak eta teknologia berriek dakarten garapen aukera.

EHUko Gizarte Zientzia eta Komunikazioaren Fakultateak eta Blackkamera Argazkilaritza Eskolak antolatua. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da.

SELECTED EUROPE

SORMEN ETA DISEINUAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

AZAROA

SELECTED ekimenak irauten dituen bi egunetan, diseinu eta sormen industriaren arloko diseinatzaile eta sortzaileek parte hartzen dute. Euskalduna jauregian izaten da. Diseinu grafikoaren arloko langile eta talentu berriei espazio berezi bat ematen zaie **sormen eta diseinu arloko azken joerak d**eskubritu eta partekatzeko; bertaratutako pertsona guztien artean ideia eta inspirazio berriak mahai gainean jartzeko, hitzaldi, mahai-inguru eta bestelako jardueren bidez.

BILBOARGAZKI

BILBOKO XIV. ARGAZKILARITZA JAIALDIA

URRIA

Euskal Herriko Argazkilarien Elkarteen Federazioak antolatua, BilboArgazki jaialdiak iraun bitartean, Bilbo argazkilaritzaren nazioarteko hiriburu bihurtzen da. Egile espainiar eta atzerritarren 10 erakusketa, 8 hitzaldi eta 4 argazki tailer egingo dira, horietako bat haurrei zuzendua, eta Balio Gazteen Lehiaketa ere bai.

BILBAO ART&FASHION BIAAF

OTSAILA

18 eta 35 urte bitarteko mundu osoko diseinatzaile berriei zuzendutako **moda-diseinu lehiaketa.** 90 herrialde baino gehiagotako eta moda-diseinuko nazioarteko eskola onenetako talentu gaztea. Lehiaketara aurkezten diren lan guztiak artearen munduarekin zuzenean lotuta egon behar dute, nolabait (estanpatuak, moldeak, xehetasunak, ...), eta artearen munduari ekiteko diseinatzaile bakoitzak dituen ikuspuntuak erakustea suposatzen duen kulturarteko aberastasuna bilatzen da. Europa mailako erreferentea da ekitaldi hau, eta UNESCO erakundearen babesa dauka. Mundu osoko sortzaileek beren talentua eta sormena erakusteko aukera daukate.

• Lanak aurkezteko epea: Otsailak 16.

• Sariak entregatzeko ekitaldia: Ekainak 11.

REKALDE ARETOA

Aretoa Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du, eta 1991n sortu zenetik, gure arteko eta gure mugetatik kanpoko arte-jardunbide garaikide desberdinak ezagutu, jaso eta plazaratzeko helburua du. Kultura eta artearen hizkuntza batzuen eta besteen aurkezpenerako eremu ireki bat da, praktika artistiko garaikidearen ikasketa-plataforma bat.

2020an zehar, Rekalde Aretoak hainbat erakusketa izango ditu: **Ignacio Goitia, Cristina García Rodero, Ertibil Bizkaia 2020 eta Agustín Ibarrola.** Aldi berean, jarduera didaktiko ugari gauzatzen dira: bisita komentatuak ostegunero; bisita-tailerrak eskola umeentzat eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat; artista tailerrak Batxilergoko eta Arte Ederretako ikasleentzat; 60 urtetik gorakoentzako artea eta oroimena tailerra; asteburuetako tailerrak; familian egiteko tailerrak eta, aurten, berritasun moduan, ingelesezko tailer bat umeentzat: Little Artists.

BLV-ART

EKAINAREN 3TIK 13RA

BILBO ZAHARRA, SAN FRANTZISKO, ZABALA

Adierazpen modu hiritarrenei lotutako udal programa bat da. Kulturaren aldeko apustua egin da Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala inguruen birgaikuntzarako elementu gisa. Zinema, performanceak, antzerkia eta inguruko sormen eremuetarako bisitak, horma-irudiak, musika eta bestelako ekimenak proposatzen dira.

BILBAO BIZKAIA DESIGN WEEK

AZAROA

Industria sortzaileen mundua sustatzeko xedea duen ekitaldi bat, alegia arkitektura, artisautza, ikus-entzunezkoak, komunikazioa, eduki digitalak, diseinua, interiorismoa, moda eta bideo-jokoak sustatzea. Bilbo eta Bizkaiko berrogei lekutan antolatzen dira hainbat ekitaldi. Sorkuntza arloko langileei eta herritar guztiei eskainitako ekimena da, eta sorkuntza diziplinen bidez etorkizunera begirako ikuspegia helarazi nahi digu.

FIG BILBAO

GRABATU ETA PAPER GAINEKO ARTEAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

AZAROA

Paperaren gaineko arteari eta lan grafikoari buruzko Europako erreferentzia garrantzitsuenetako bat da FIG Bilbao. Nazioarteko proiektu honek merkataritzako, museoetako eta ikerketa arloko eskaintzak bateratzen ditu. Alde horretatik, arte-galeriei, editoreei eta lantegiei eskainitako guneak ez ezik, beste babiloi batzuk ere izaten dira museoetatik eta kultura-erakundeetatik datozen paper gaineko lanak erakusteko. Programazioa osatze aldera, tailerrak, hitzaldiak, zuzeneko erakustaldiak eta abar egingo dira.

Helburu nagusietako bat sortzaile grafiko berrien lana ikusaraztea da, **Open Portfolio** programaren bidez: aldez aurretik egindako hautaketa baten ostean, 32 artistari aukera ematen zaie beren lanak eremu profesional batean erakusgai jartzeko, alegia, Open Portfolio Itinera erakusketak deritzenak.

Literatura eta Ezagutza

Koloreen harmonia perfektu bat, literaturaren eta zientziaren artean

UDAL LIBURUTEGIEN SAREA

Bilboko Udal Liburutegien Sarea **15 egoitzaz** osatua dago: Liburutegi nagusi bat Bidebarrietan, barrutiko bi liburutegi Deustun eta Begoñan, auzoko hamaika liburutegi San Ignazio, Zurbaran, Castaños, Otxarkoaga, Ibaialde, San Frantzisko, Zabala, San Adrian, Irala, Errekalde eta Zorrotzan, eta Buiako zerbitzu-gunea. Denen artean, euskarri desberdinetan (liburuak, aldizkariak, filmak, partiturak eta CDak) 450.000 aletik gorako dituen bilduma bat jartzen dute herritarren esku, adin guztietarako eta etengabe eguneratuta. Kontsultak liburutegietan bertan egin daitezke edo maileguan har daiteke behar dena. Bilduma horren zati bat garai bateko funts batek eta bertoko funts batek eratzen dute, apurka-apurka digitalizatzen eta **Bilboko Liburutegi Digitalean (BLD)** sartzen ari dena.

Sareak, gainera, ordenagailuen zerbitzua eta WiFi konexioa eskaintzen du, erabiltzaileei Interneterako sarbidea errazteko, baita **jarduera programa** oso bat ere. Programa horrek barne hartzen ditu 300 proposamen baino gehiago, bai helduentzat (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez irakurtzeko tailerrak, hitzaldiak, topaketak idazleekin, bibliografia-erakusketak eta bisita gidatuak), bai gazte eta haurrentzat ere (ipuin-kontalariak, literatura, zientzia, komiki eta magia tailerrak).

BIDEBARRIETA KULTURGUNEA

Bidebarrietako Udal Liburutegiko ekitaldi aretoa hausnarketa eta topaketarako eremu bihurtzen da, literatur, poesia, zientzia eta kulturaren zabalkunderako ekitaldien bidez:

- **LITERATUR SOLASALDIAK:** Literatur topaketak egiten dira idazle ospetsuekin, gai interesgarriren bat hautatu eta horretaz hitz egiteko. Aurkezle eta moderatzaile lanak egiten dituen pertsona bat egoten da.
- B**IDEBARRIETA ZIENTIFIKOA:** Egunerokotasun zientifikoko gaiei buruzko hileroko topaketa.
- **XXI. MENDEKO IDAZLEAK:** Bi hilean behin topaketak egiten dira idazle ospetsuekin, edota literaturan nabarmentzen hasi diren idazle berriekin.
- **CAFÉ VOLTAIRE:** Eguneroko gaiei buruzko eztabaida zikloa, aldarrikatuz solas informatu, argudiozko eta liburuaren kulturatik ezin bereiziaren plazera, Ilustrazioan ideien eta usteen trukeak izan zuen garrantzia gomutatuz.
- **LITERATURA FRANTSESAREN INGURUKO TOPAKETAK:** Bilboko Institutu Frantsesarekin batera antolatuta.
- **BIDEBARRIETA MUSIKALA:** Musika emanaldiei eskainitako atal berezia.
- **DARWIN EGUNA:** Otsailaren 12an, Charles Darwinen jaiotzaren eta eboluzioaren inguruan garatu zuen teoriaren urteurrena da. Horren harira, hainbat zientzia arlotako figuren hitzaldi eta solasaldiak antolatuko dira.
- **EGUN INSTITUZIONALAK:** Hiribilduko egile ospetsuen aldeko errekonozimendua: Blas de Otero (martxoak 15), Miguel de Unamuno (irailak 29), Gabriel Aresti (urriak 14) eta Ángela Figuera (urriak 30).
- **POESIAREN MUNDUKO EGUNA:** Martxoak 21.
- **MATEMATIKAK EGUNEROKO BIZIMODUAN:** Maiatzeko ostegunetan, matematika jendearengana gerturatzeko ekitaldiak.
- **KULTURA ETA PENTSAMENDUARI BURUZKO ZIKLOA:** Gaurkotasuneko gai bati buruzko hitzaldiak, maiatzeko astelehenetan.
- **LIBURUTEGIAREN EGUNA:** Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzea, urriaren 24an.
- E**MAKUMEEK ZIENTZIA EGITEN DUTE:** Emakumeek zientziaren munduan egindako ekarpenari balioa emateko helburua duen programa. Azaroan, ostegunetan.
- **EUSKARAREN EGUNA:** Euskararen Eguna, abenduaren 3an.
- **Liburu aurkezpenak, topaketak idazleekin,** errezitaldi lirikoak, eta abar.

BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

Hiriko Zabalgunean bertan kokatua, Foru Liburutegia **ondareko liburutegi** bat da, jagoteko zerbitzu publikorako bokazioa duena. Eginkizun nagusietako bat du Bizkaiko argitalpen-produkzioa, gure lurraldeaz diharduena, jagon eta zabaltzea. Bere funtsetan sartzeko, Liburutegiak gela barruko irakurketa zerbitzua eskaintzen du, goiz eta arratsaldeko etengabeko ordutegian.

Ia 300.000 alez osatutako bilduma dauka gaur egun, eta hauetako batzuk eskuragarriak dira, zenbait gela eta kontsulta-guneetan banatuta. Benetan aipagarria da bere erreserba-funtsa, inkunable eta liburuen, liburuxken, orri banaken, aldizkarien eta eskuizkribuen bilduma garrantzitsu eta esanguratsu batez osatua.

LITERATUR LEHIAKETAK

Kultura Sailak hainbat lehiaketa antolatzen ditu, literatur arloko sortzaile berrien lana sustatu eta babesteko:

- **GABRIEL ARESTI IPUIN LEHIAKETA:** XXXVII. Edizioa. Deialdia: Urtarrilak 15. Jatorrizko lanak jasotzeko azken eguna: Martxoak 30.
- **MIGUEL DE UNAMUNO SAIAKERA SARIA:** XXI. Edizioa. Deialdia: Otsailak 15. Jatorrizko lanak jasotzeko azken eguna: Apirilak 30.
- **BLAS DE OTERO – BILBOKO HIRIA POESIA SARIA:** XIII. Edizioa. Deialdia: Martxoak 15. Jatorrizko lanak jasotzeko azken eguna: Maiatzak 30.

LIBURU AZOKAK

Liburu Azoken bidez, idazleen eta irakurleen arteko topaketa bideratzen da. Nobedadeak, liburu zaharrak edo ale bereziak standetan salgai jarrita, aukera bikaina ematen dugu Bilboko Areatzatik ibilbide kulturala egiteko.

Euskadiko liburu Ganberarekin batera antolatutako programa.

- **LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA:** Apirilaren 23a, Berastegi kalean.
- **LIBURU BERRIAREN AZOKA:** Maiatzaren 28tik ekainaren 7ra, Areatza pasealekuan.
- **LIBURU ZAHARRAREN ETA OKASIOKO LIBURUEN AZOKA:** Urriaren 23tik azaroaren 8ra, Areatzako pasealekuan.

BILBAOPOESIA

POESIAREN ASTEA

MARTXOKO LEHEN HAMABOSTALDIA

BIDEBARRIETAKO LIBURUTEGIA

Udaleko kultura Sailak antolatutako jaialdia. Hamar egunez, nazioarte eta estatu mailako poetarik onenak bilduko dira. Korronte eta adin aniztasuna handia izanik, Euskadiko erreferenteetako bat da jaialdia.

UDAL ARGITALPENAK

Aurten, 2020an, Udalak antolatutako lehiaketa hauetako irabazleen lanak argitaratuko dira:

- **BLAS DE OTERO-BILBO HIRIA POESIA SARIA** 2019, euskaraz eta gaztelaniaz.
- **MIGUEL DE UNAMUNO SAIAKERA SARIA** 2019, euskaraz eta gaztelaniaz.
- **GABRIEL ARESTI LEHIAKETAKO IPUINAK** 2019-2020, euskaraz eta gaztelaniaz.

BBK MEDIATEKA-AZKUNA ZENTROA

Informaziorako zentroa, komunikaziorako eta kultur trukerako tokia; aisialdirako, irakurketa sustatzeko edo ikasi eta ikertzeko gune bat, askotarikoa. Helrritar ororen esku jartzen du sarbide libreko funts handi bat, diziplina anitzekoa, dibulgaziokoa eta eguneratua, eta literaturaren zabalkunderako jarduerak antolatzen ditu urte osoan.

IDEIAK MARTXAN

Gazteria eta Kirol Sailak sustatutako deialdia, **gazteen proiektuen garapena** babesteko eta gazteei zuzendutako egitarauak aberasteko asmoz. 14 eta 35 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, maila indibidualean edo taldeka.

Proposatutako ideiak Bilbon garatu behar dira, eta gazteentzako interesgarriak izan daitezkeen gaien ingurukoak izango dira: Kultura (arte plastikoak, bisualak, ikus-entzunezkoak, eszenikoak, musika, literatura, sorkuntza eta berrikuntza...); Diseinua; Arkitektura, hirigintza eta ondarea; Informazio eta komunikaziorako teknologiak; Zientzia eta teknologia; Berrikuntza soziala; Kirola eta jarduera fisikoa; Kultura aniztasuna; Ingurumena eta iraunkortasuna; Elkartasuna eta sentsibilizazioa; edo Aisialdia.

GUTUN ZURIA

LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

AZKUNA ZENTROA

MARTXOAREN 31TIK APIRILAREN 4RA

Lengoaia artistiko berriak sortu eta zabaltzeko xedea duen literatur jaialdia. Hitza sorkuntza artistikoaren parte da, eta musika, zinema edota arte eszenikoen bidez hartzen du forma. Edizio honetan, **saiakerari** buruzko hausnarketa egingo dugu, genero literario gisa daukan ikuspegia baino beste zabalago bat eskainiz.

ZIENTZIA AZOKA

FERIA DE LA CIENCIA

MAIATZAREN 9A

Zientzia Azoka izeneko ekimena **Elhuyar Zientziak** sustatzen du. 12 eta 18 urte bitarteko gazteek proiektu zientifiko edo teknologiko bat egin behar dute ikastaroan. Haiek aukeratuko dute gaia, eta horren inguruko galderak egin, ikertu, diseinatu, eraiki eta esperientzia berriak bizitzeko aukera izango dute.

Egunean zehar, parte-hartzaileek beren lanak aurkeztuko dituzte, diplomak jasoko dituzte, Elhuyarrek horretarako prestatutako txokoan esperimentuak egiten ikasiko dute eta, azkenik, sariak jasoko dituzte.

KLASIKOEN IRAKURKETA JARRAITUA

EKAINA

Urtean behin ospe handiko idazle baten testuaren barruan sartzen gara. Hartara, bere lan baten **irakurketa jarraitua euskaraz** egiten da **Arriaga Antzokian,** goizeko zortzietan hasi eta arratsaldeko zortziak bitartean. Horrez gain, egile horri buruzko hizketaldiak egiten dira Euskaltzaindiaren egoitzan. Bilboko Udalak antolatzen du Bilbo Zaharra Forumekin elkarlanean (Bilbo Zaharra Euskaltegia).

JA! BILBAO

UMOREZKO LITERATURA ETA ARTEAREN NAZIOARTEKO XI. JAIALDIA

URRIAREN 1ETIK 11RA

Arteetan oro har eta literaturan bereziki umoreak duen garrantzia azpimarratzen saiatuko den kultura ekitaldi paregabea. Jaialdiak jarduera askotariko programa bat aurkezten du, eta bertan tokia dute bai gogoetak eta bai dibertsioak ere. Horretarako, eztabaidak eta mahai-inguruak egiten dira hainbat gairi buruz, elkarrizketak egiten zaizkie uneko egile interesgarri eta nabarmenei, eta emanaldiak, lehiaketak eta erakusketak ere izango dira. **BBK Ja! Sariaren** bitartez, ekitaldi honek omenaldia egiten dio urtero nazioarteko pertsona ospetsu bati, zeinaren lanean umorea funtsezkoa izan baita.

URBANBAT JAIALDIA

URRIA-AZAROA

Edizio bakoitzean, URBANBATfest jaialdia **fenomeno urbano garaikide bat** ikertzeaz arduratzen da. Horretarako, denbora eta formatu anitzeko programa bat erabiltzen da, eta hiria, hiritartasuna, artea, kultura, gizartea eta lurraldearen arteko harremana aztertzen dira. Berrikuntza ireki eta lankidetzazkoaren ideiatik abiatuta, kultur aldaketa bat bilatzen da, zer publikoari eta guztiona den horri buruzko jokabideetan eta balioetan eta orobat hiria eraikitzeko moduan eragin nahiz.

RAFAEL MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA. XXXII. EDIZIOA

ABENDUA – URTARRILAK 31

Udalak antolatzen duen sariketa hau Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat da, eta **euskaraz idaztea eta irakurtzea bultzatzea** du xede. Ipuinek argitaragabeak izan behar dute, euskaraz idatzita eta marrazkiek lagunduta egon behar dute. Lau kategoria daude ikasketa-mailen arabera eta hiru sari banatzen dira haietako bakoitzean. Bestalde, aurten beste bi sari emango zaizkie Bilboko Balioen Gutuneko oinarriak islatzen dituzten ipuin aukeratuei. **Rafael Mikoleta** izena darama, lehenengo euskal gramatikaren egilearen omenez.

BILBAO EUROPEAN ENCOUNTERS

2013an Bilbao European Encounters delakoak sortu ziren, kongresu formatuan eta izenburu honekin: "Europa después de la crisis del euro: legitimidad, democracia y justicia". Bokazio bikoitza dute: Batetik, Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida aberastea, toki, estatu eta nazioarteko mailako adituak Bilbon bilduz, Europaren inguruan aztertu eta eztabaidatzeko, eta, bestetik, Europari buruzko auzia herritarren artean zabaltzea.

BIZILABE BILBAO

Bizilabe 12 eta 19 urte bitarteko gazteentzako **Ikerketa Zentroa** da. **Gai zientifiko eta teknologikoak** ditu oinarri, eta helburu nagusia gai horiekiko interesa piztea, da, baita ekintzailetza eta sormena sustatzea ere. Irakasle eta aholkularien laguntzaz, gazteek beren gaitasunak landuko dituzte tailer eta proiektuetan.

Bilbao Ekintza udal entitateak sustatuta, Deustuko Udal Zentroan dago kokatuta.

BILBAO MAKER FAIRE

URRIA

Teknologia Sortzaileen Nazioarteko Jaialdia. Azoka zientifikoaren eta arte jaialdiaren arteko zerbait dela esan genezake. Mundu osoko 200 hiri baino gehiagotan egiten da. Tokiko, estatuko eta nazioarte mailako proiektuak, **Egizu-zuk-zeuk** kulturaren inguruan eta teknologia berrien inguruan sortuak. Munduko asmatzaile eta sortzaileak, jende guztiari zuzendutako asmakizun eta sormen eskaintza, eta Maker mugimenduaren ospakizuna. Antolatzailea: Espacio Open.

Ikus-entzunezkoa eta teknologia berriak

Kolore askotako proiekzio sorta hirian

BILBAO BIZKAIA FILM COMMISSION

Hiri eta lurralde guztiek nahi dute filmak egin daitezen eurenean, argi baitaukate horrek eragin positiboa duela ekonomian, enpleguan, turismoan, nortasunean eta kulturan. Bilbao Bizkaia Film Commission talentuari eta sormenari laguntzeko zerbitzu publiko bat da, eta bere xedea du filmak egiteko aukerak erraztea, istorio ederrak kontatzeko baldintza eta lokalizazio onenak eskainiz.

FAS ZINEKLUBA

Cineclub FAS irabazteko asmorik gabeko elkarte bat da, Bilboko zinematografia-eskaintza osatzeko asmoa duena, 3 proiekzio motarekin: jatorrizko bertsioan dauden filmak azpitituluekin (oraindik ere hirian estreinatu ez direnak); klasiko handiak; eta emanaldi bereziak zuzendaria edo zinemaren arloko beste pertsona ospetsu bat bertan dela. Emanaldiak ikasturtean zehar astearteetan izaten dira, 19:45ean, Indautxu plazako El Carmen aretoan. Amaitutakoan, hizketaldiak egiten dituzte filmen hainbat alderdi tekniko eta tematiko aztertzeko. Gainera, badu dokumentazio-gune bat ere, eta zinematografia-arloko aholkularitza zerbitzu bat ere bai, erakundeentzat nahiz interesa duten pertsonentzat.

ART HOUSE ZINEMA

BILBAOARTE FUNDAZIOA

BilbaoArte udal Fundazioak era bateko eta besteko genero eta egileen **zinema eta dokumental zikloak** antolatzen ditu bere egoitzan, edonorentzat eta dohainik, eta orobat hitzaldiak, mintegiak eta topaketak.

FILM LABUR ETA BIDEOKLIPEN NAZIOARTEKO XVIII. JAIALDIA: CAOSTICA

EKAINA

100 nazionalitate baino gehiagoko lanak aurkezten dira lehiaketara. Oraingoan, neobilboko ikus-entzunezkoaren munduko bitxikeriak maite dituztenentzako edizio berezia izango da; horretaz gain, proiekzioak kalean, kontzertuak, performanceak, Dj & Vj sessions, zoramena eta umore ona izango dira.

X GIZAZINEA

OTSAILA

Caostica Elkarteak antolatuta, Izaera hezitzailea duten jardunaldiak dira, giza-eskubideak eta balioetako heziketa ikus-entzunezko- eta arte-sorkuntzarekin elkartzen dituztenak. Helburu nagusia ikusleengana gerturatzea da, gaur egungo giza errealitate desberdinetara hurbiltzeko: Emakumeen berdintasunaren aldeko borroka, aniztasun funtzionala, askatasun eza, indarkeria instituzionala... hori guztia **zinemaren, arte plastikoen, musikaren edota literaturaren bidez.** Horrela, hausnarketa, solasa eta tolerantzia sustatu nahi dira.

ZINEMATEKA

AZKUNA ZENTROA

Urteko programazioa dela eta, alde batetik, gaur eguneko errealitateari eta gure inguruko sortzaileei lotutako zinema eskaintzen du eta, beste alde batetik, zinema klasikoko filmak. Ildo biak garatzen dira modu paraleloan, urtean zehar, asteazken eta ostegunetan. Gaur egun, zinema klasikoko zikloa historiako harribitxiak berrikusten ari da.

BIDEOTIK, IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBA BATZUK

Otsailean BIdeOtik ekimenaren beste edizio bat jarriko da martxan. Bideo-sorkuntzarako programa honetan, deialdi publiko bidez hautatzen dira hainbat lan. Urria eta abendua bitartean egongo da irekita, Festhome plataformaren bidez.

Proiekzioak astero egingo dira, otsailaren 4tik martxoaren 31ra bitartean, BIdeOtik ohiko formatuan: Ikus-entzunezko sorkuntzaren eta gizartearen arteko konexioa. Horren bidez, egile bakoitzak bere lana aurkeztu ahal du, eta ikusleekin partekatu ahal ditu proiektuaren prozesuak.

ZINEGOAK

BILBOKO LGTBI ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN XVII. JAIALDIA

OTSAILAREN 24TIK MARTXOAREN 8RA

Ezinbesteko jaialdia **sexu, genero eta identitate aniztasunaren** inguruan antolatutako zinema eta kultur arloko jarduerez gozatu nahi dutenentzat. Gainera, erreferente bat da gai honen inguruko zinema ekitaldiei dagokienez. Bi astetan zehar ikus-entzunezkoak, hitzaldiak, aurkezpenak, kontzertuak, jaiak eta bestelakoak egiten dira, zinema eta kultura gizarte eraldaketarako tresna gisa erabiliz.

BIDEODROMO

ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEAK

AZAROKO BIGARREN HAMABOSTALDIA

GOLEM-ALHONDIGA ZINEMAK

Elkarbizitzari buruzko zinema jaialdia, Eusko Jaurlaritzak sustatua. Hamaikagarren edizioa da honako hau, eta dagoeneko finkatu egin da, filmak ikusteaz landarako hainbat jarduera eskainiz: Batetik, filmen emanaldiaren ostean solasaldiak egingo dira gai bakoitzaren inguruan, gonbidatu bereziek lagunduta; bestetik, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei zuzendutako saio bereziak egingo dira. Bilboko Udalarekin batera. Erakunde laguntzaileen artean, honako hauek daude: Amnistía Internacional, Euskadiko Munduko Medikuak, eta Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR).

ANIMAKOM FEST 2020

BILBOKO ANIMAZIO ZINEMAREN NAZIOARTEKO IV. JAIALDIA

MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 5ERA

Marrazki bizidunezko zineman gaindiko ibilbide sinestezin bat proposatzen dizugu. Laugarren edizio honetan, lehiaketan berezkoak diren bi sailak (profesionala eta ikasleena) eta hainbat jarduera izango ditugu, hainbat profesionalekin. Horien artean egongo dira punta-puntako serieen sortzaileak (BoJack Horseman). Urtero ematen da **Animakom Award** saria, eta oraingoan **Nina Paleyk** jasoko du, kultura askearen aktibista garrantzitsuak.

Horrez gain, euskal film laburren eguna egingo da, emakumeek zuzendutako animazioko film labur onenen saio bat, munduko jaialdi onenen inguruko atzera begirako saioak, luzemetraiak, umeentzako saioak eta film labur bizarroen gaueko emanaldiak.

FANT 26

BILBOKO ZINEMA FANTASTIKOAREN XXVI. JAIALDIA

MAIATZAREN 8TIK 16RA

Bilboko Udalak antolatuta, fantasiazko generoaren azken berrikuntzak erakusten ditu **Atal Ofizialean eta Ikuspegi FANTastikoa Sailean.** Eta hori osatzeko, film klasikoak ematen dira, Fant Maisuei omenaldia egiten zaie, generoan erreferentziazkoak diren dokumentalak proiektatzen, eta haurrentzako saioak eta film laburren saioak egiten dira. Gainera, **Fantrobia saria** emango zaio fantasiazko zineman gorantz doan figura bati, eta epaimahaiaren ustez onenak diren lanei ere sariak emango zaizkie. Film laburren kasuan, ikus-entzuleek ere saritzen dute lan bat.

XI ZINEXIT

ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEAK

AZAROKO BIGARREN HAMABOSTALDIA

GOLEM-ALHONDIGA ZINEMAK

Elkarbizitzari buruzko zinema jaialdia, Eusko Jaurlaritzak sustatua. Hamaikagarren edizioa da honako hau, eta dagoeneko finkatu egin da, filmak ikusteaz landarako hainbat jarduera eskainiz: Batetik, filmen emanaldiaren ostean solasaldiak egingo dira gai bakoitzaren inguruan, gonbidatu bereziek lagunduta; bestetik, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei zuzendutako saio bereziak egingo dira. Bilboko Udalarekin batera. Erakunde laguntzaileen artean, honako hauek daude: Amnistía Internacional, Euskadiko Munduko Medikuak, eta Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR).

ZINEBI 62

BILBOKO NAZIOARTEKO DOKUMENTAL ETA LABURMETRAIA ZINEMALDIA

AZAROAREN 13TIK 20RA

Zinebi erreferente bat da dagoeneko dokumentalen eta film laburren zinemaren barruan, estatu mailan zein nazioartean. 1973tik, Filmen Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioaren aitorpena dauka (FIAPF), nazioarte mailan **lehiakortasun maila handieneko jaialdia** izateagatik. Zenbait sari ematen dira, besteak beste, fikzio, dokumental eta animazio kategorietako **Urrezko Mikeldi** sariak, Euskal Zinemaren Sari Nagusia, Espainiako Zinemaren Sari Handia, Jaialdiko Sari Nagusia eta ZINEBI FIRST FILM (ZIFF) saria opera prima film luzearen kategorian. <0}

Lehiaketan sartzen ez diren beste sail batzuk dira: Beatiful Docs, nazioarteko dokumental luzeen erakusketa, eta Bertoko Begiradak, euskal film labur eta luzeen atala. Horretaz gain, beste jarduera batzuk egongo dira, hala nola ZINEBI Networking foroa, haur eta nerabeei zuzendutako ZINEBITXIKI, atzera begirako saioak, focus tematikoak, omenaldiak, profesionalen arteko topaketak, prestakuntza-tailerrak, hitzaldiak, jaiak, performanceak eta abar.

Aurreko astean zehar, ZINEBI-EXPRESS delakoa antolatuko da, 48 ordutan sortu, idatzi, ekoitzi, filmatu eta muntatutako film laburren lehiaketa.

FAB

BILBOKO IV. ANIME JAIALDIA

IRAILA

FABek Bilboraino hurbilduko ditu **Japonian ekoiztutako animeko azken filmak.** Guggenheim Museoaren Auditorioan izango dira ekitaldiak, eta jaialdiak iraun bitartean nazioarteko onespena duten zinegileen lanak ikusi ahal izango dira. Gainera, Japoniako industria kultural arrakastatsuenetako batean, hau da, animazioan lan egiten duten sortzaile berrien proposamenak aurkituko ditugu.

BILBAO SERIESLAND

URRIA

Euskal Herriko **Sail Digitalen Nazioarteko Jaialdia.** Eduki independente onenak eta mundu osotik datozen sortzaileak elkartuko dira bertan.

ZINETXIKI ZINEMALDIA

URRIA-AZAROA

Begira Elkarteak antolatzen duen **Haur eta Gazteentzako Nazioarteko Zinema Jaialdia**. 2015ean hasi zen egiten, familia osoarentzako kalitatezko ikus-entzunezko lanak eskaintzeko. Helburu nagusia ikus-entzunezkoen inguruko kultura sustatu eta audientzia berriak sortzea da. Jaialdia martxan jarri zenetik, egitarau anitza antolatzen da urtero. Horretarako, hainbat arlotan adituak diren pertsonek hautatutako obrak ematen dira. Gainera, **zinema, teknologia eta artearen inguruko familia-jarduerak** ere antolatzen dira.

ZINEMAKUMEAK GARA!

URRIKO BIGARREN HAMABOSTALDIA

Emakumeek zuzendutako zinemaren erakusketa da hau. Urtero gai baten inguruko film labur eta luzeen sorta zaindua, mahai inguruak eta hitzaldiak eskaintzen dira.

V HOMELESS FILM FESTIVAL

AZAROAREN 18A ETA 19A

BIZKAIA ARETOA

Homeless Film Festival jaialdiak, zinematografiaren bidez, etxerik gabeko pertsonak lehen planoan jartzen ditu. Jaialdi hau Manchesterren (Erresuma Batua) hasi zen egiten 2011n, eta 2016tik Bilbon ere egiten da, Bizitegi elkarteari esker, Bilboko Udalaren, BBKren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin. Helburua Gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonenganako sentsibilizazioa eta **jokabide positiboen sustapena** da, jendarte inklusiboago bat lortzeko asmoz.

Unibertsitate eta ikastetxeetako ikasleek gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen errealitatearen inguruan film laburrak egitea sustatzen da. **Bizitegi** eta beste gizarte erakunde batzuetako pertsonekin film laburren tailerra egiten da, gerora lan horiek jaialdian emateko, pertsona horiek boteretu eta ahotsa emate aldera.

BBK MENDI FILM BILAO-BIZKAIA

MENDIKO ZINEMARI BURUZKO BILBOKO NAZIOARTEKO XIII. JAIALDIA

ABENDUA

BBK SALA, EUSKALDUNA JAUREGIA, GOLEM ZINEMAK

Jaialdi honek, zeina International Alliance for Mountain Film elkarteko kidea baita, aurten ere, beste behin, mundu osoan ekoiztutako **mendiko, abenturazko eta muturreko kiroletako zineman** ekoitzitako emaitza nabarmengarriena hurbilduko digu. Eskola magistralek, erakusketek, eta errealizadoreekin, mendizaleekin eta alpinistekin egindako topaketek lehen mailako programazioa osatuko dute. Helburua da mendiaren inguruko zinema sustatu eta mantentzea, eta orobat mendizaletasunaren kultura eta naturarekiko errespetua. Gainera, mendiaren kulturaren balioak transmititu eta haiei ekarpena egiteagatik mundu mailan erreferentziazkoak diren pertsonekin elkartzeko eta biltzeko tokia ere bada.

FUN&SERIOUS GAMES FESTIVAL

ABENDUA

EL CORREO egunkariak antolatua, Bilboko Udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritza-SPRI erakundeen laguntzarekin. Helburu nagusia da **bideo-joko** ekoizle, zuzendari, artista eta garatzaileen lana aitortu eta sustatzea. Egitarau oparoa prestatu da, hitzaldi, mahai-inguru, tailer, networking saio eta askotariko jarduerekin, bai arlo honetako profesionalentzat, baita gainerako pertsonentzat ere. Bukaeran, urteko bideo-joko onenei sariak emateko ekitaldi bat egingo da.

2011n hasi zen egiten, eta egun horietan Bilbo bideo-jokoen hiriburu bihurtzen da.

TRACKING BILBAO 8

ABENDUA

BILBOROCK, BBK SALA, BIZKAIA ARETOA UPV/EHU

Interneteko gauzen jaialdia da, Caosticak eta Borja Crespok antolatua, Estatuko eta nazioarteko kultura digitalean bikainenak biltzen dituena Prestakuntzarako, hausnarketarako eta dibertsiorako jardunaldiak, sarearen bidez bizimodua ateratzen ikasi duten artistak elkartzen dituztenak, ikastaroekin, tailerrekin, eskola magistralekin, hitzaldiekin, topaketekin, ikuskizunekin eta kontzertuekin.

Musika

Tonalitate ezberdineko notak belarrientzat



BILBAOMUSIKA

Udal Musika Eskolak musika tresnen eta abesbatzen espezialitateen eskaintza konplia du, dantza eta musikarekin lotutako ikastaroen eta **jardueren programa zabal** batez gain. Entzunaldiak, kontzertuak, kalejirak, erromeriak, tailerrak, kontzertu didaktikoak, prestakuntza-ikastaroak eta beste jarduera asko antolatzen ditu, eskolak berak bakarrik, edo musika-zaletasunaren garapenari edo bere adierazpenaren hedapenari laguntzen dioten beste erakunde batzuekin elkarlanean.

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA

Eragile nabarmena da bilboko kultura-jardunean. Ekitaldi ofizialetan, eta auzoetako eta areatzako kioskoko kontzertuetan parte hartzeaz gain, bere **kontzertu denboraldia** garatzen du euskalduna jauregiko auditorioan, azkuna zentroaren atarian, bbk salan eta bilboko juan crisóstomo de arriaga kontserbatorioko auditorioan, eta aste nagusian ere parte hartzen du. Bilboko udal musika bandak, kide dituen interpretatzaileen kalitateagatik ez ezik, programazio berritzailea aukeratzeagatik ere nabarmentzen da, zenbait genero eta estilo konbinatzen dituelako eta nazioarte mailako zuzendari eta konpositoreekin lan egiten dutelako.

BILBOKO TXISTULARIEN BANDA

Jardueren egitarau zabal eta anitza gauzatzen du, protokolozko ekitaldietan eta inaugurazio-ekitaldietan, kalejiretan, alardeetan eta auzoetako kultura-programetan parte hartuz, eta elkarlanean arituta musikari, musikagile eta hiriko kultura- eta gizarte-eragileekin. Euskalduna jauregian egiten duen kontzertuen urteko zikloa nabarmendu behar da.



BILBOROCK

Eremu hau erreferente bihurtu da gazte jendearentzat eta jarduera kulturalak sustatzen dituzten enpresa eta erakundeentzat. Elkarrekin egon, sortu, esperimentatu, produzitu, erakutsi eta parte hartzeko lekua da. Batez ere, musika emanaldiak izaten dira, baina baita zinema, dantza eta antzerkia ere. Horrekin guztiarekin erlazionatutako instalazioak, laborategiak, hitzaldiak eta aurkezpenak antolatzen dira.

Udal gune honek erabilera anitzeko aretoa du jardueretarako eta topagunerako, lab aretoa esperimentaziorako eta prestakuntzarako, eta musika-taldeentzako entseguetarako aretoa ere bai.

Antolatzen dituen jardueren artean, **bilbo hiria pop-rock lehiaketaren** xxxi. Edizioa nabarmentzen da da, europako taldeei zuzenduta, 3 modalitate hauetan: pop rock, metal eta urban. Maiatza da izena emateko sasoia. Hautatutako taldeek irailean eta urrian emango dituzte kontzertuak.

BOS

BILBOKO ORKESTRA SINFONIKOA

Bilboko orkestra sinfonikoak eta bere **zuzendari erik nielsen**ek **kontzertu sinfoniko eta ganbera-kontzertu** sorta zabala eskaintzen dute urtero euskalduna jauregian. Gainera, bizkaiko beste leku batzuetan ere aritzen dira, eta baita atzerrian ere. Olberen opera programan ere parte hartzen du eta **lan pedagogiko** garrantzitsua egiten du, kontzertu pedagogikoen egitarauaren bidez.

Bosren jarduera zaleen babesari eta erakunde laguntzaileen ekarpenei esker garatzen da: bizkaiko foru aldundia eta bilboko udala.

BILBOKO KORAL ELKARTEA

Xix. Mendearen amaieran sortu zen, orokorrean, musikaren, eta bereziki **kantuaren ezagutza** eta zabalkundea sustatzeko asmoz. Gaur egun, baditu 1.000 Bazkide, ia 500 abesbatza-abeslari, eta 350 ikasle ere bai musika irakaskuntzarako zentroan. Urtean zehar, jarduera handia izaten du abesbatzaren arloan eta sinfonikoan, sarritan agertokia bilbao orkestra sinfonikoarekin (bos) partekatuz edo musika-música bezalako jaialdietan parte hartuz. Bestalde, **bilboko korala gertutik** zikloa gauzatzen du, musika bilboko zenbait auzotara eramanez. Era berean, hezkuntza orokorrean prestakuntza korala sustatzen du **eskolan kantari** proiektu hezitzailearen bidez, eta oporraldietan musika-udalekuak antolatzen ditu, eta entzunaldi irekiak hiritar guztientzat.

ELKARTE FILARMONIKOA

Irabazi asmorik gabeko musika-elkarte pribatua, 1896an sortua. Bilboko erakunde adierazgarrienetako bat da, eta bere helburu nagusia da gure hirian musikaren kultura zabaltzea. Horretarako, **nazioarte mailako ospea duten musikariak** entzuteko aukera eskaintzen du. Kalitate handiko kontzertuen denboraldia eskaintzen du bere aretoan, nazioarteko musikari handiekin. Eta horrez gain, beste jarduera batzuk eskaintzen dizkigu, hala nola topaketak artista gonbidatuekin, hitzaldiak eta zikloak.

KAFE ANTZOKIA

Toki hau euskaldunen topagunea da, eta hiriko kultura erreferentzia nagusietako bat. **Zuzeneko musikan** egiten duen eskaintza nabarmendu behar da, bilboko agertoki nagusienetako bat izanik. Euskal musikari gehienek eta atzerriko talde eta bakarlariek agertoki honetan jo dute. Bere izaera bereziagatik eta programazioa askotarikoagatik, artistek oso maite dute leku hau, eta edonongo musikazaleak erakartzen ditu.
Zenbat gara kultur elkarteak kudeatutako areto honen helburu nagusia da euskararen erabilera sustatzeko ekimenak antolatzea, eta horren adibide dira bilbo hiria irratia eta gabriel aresti euskaltegia. Horretaz gain, tailerrak, jaiak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak antolatzen dira.

BILBOKO AKORDEOI ORKESTRA SINFONIKOA

55 Urte bete ditu dagoeneko, eta gure hiriaren ondare artistikoaren elementu garrantzitsuenetako bat dela esan dezakegu. Errepertorio anitz eta zabala daukate, eta musika estilo desberdinak txertatzeko egiten dituzten egokitzapenen kalitatea da beren ezaugarri nagusietako bat.

Bere proiektuen artean daude: **doremika**, lehen hezkuntzako ikasleei zuzendutakoa, *fuelles picantes* ikuskizuna, maiatzean, eta bbk salako gabonetako galak.

Era berean, **akordeoi eta musika eskola**ren bidez, musikaz eta akordeoiaz edozein adinetan gozatzeko aukera ematen da.

BIZKAIKO ASTE KORALA

OTSAILA

47. Edizioa izango da dagoeneko. Musika korala maite dutenentzako ezinbesteko hitzordua izaten da. Bizkaiko abesbatzen elkarteak antolatuta, 10 kontzertu ematen dira begoñako basilikan, eta **bizkaiko 50 abesbatzak** hartzen dute parte.

MUSIKA MÚSICA

MARTXOAREN 5ETIK 8RA

Euskalduna jauregian, **musika klasikoko nazioarteko jaialdi** honen beste edizioa bat egingo da. Urtero garai, estilo edota konpositore zehatz bat hartzen da ardatz.

BJC

BILBAINA JAZZ CLUB ELKARTEA

1991Tik bjc elkarteak **nazioarteko jazz zirkuitua** aurkezten du bilbon, eszena garaikidean musika-estilo honen zabalkundean hutsune handia betez eta astero lehen mailako proposamen musikalak hurbilduz. Bi ziklo garatzen ditu: *auditorio* izenekoa eta *hileroko programazioa*, conde duque hotelean eta bbk salan hurrenez hurren.

Auditorio zikloaren programazioan soil-soilik kalitatea nagusitzen da eta europako hiriburu handietako zirkuituetako ospetsu bihurtutako izarrak eta nazioartean etorkizuna duten euskal profesionalak ekartzen ditu.

Hileroko programazioa publiko berriak sortzea du xede. Horretarako, jazzak beste estilo batzuekin bat egiteko proiektuei heltzen die (bossa, kuba, flamenkoa, klasikoa eta abar), ikus-entzule gehiagorengana iristeko, kalitateari uko egin gabe.

BAS

BILBAO ARS SACRUM

APIRILEKO LEHENENGO ASTEA

Atxuri auzoko gizakunde eliza bas jaialdiaren agertoki bihurtuko da berriro, eta bertan kultura batzuetako eta besteetako drama, musika eta **erritu liturgiko**en bertsio klasiko edo egokituak eszenaratuko dira.

DEMODAY

EKAINAK 26

BILBOROCK

"**Go2work musika ekintzailetzarako prestakuntza**" izeneko prestakuntza programan parte hartzen duten pertsonen proiektuen aurkezpena. Paideia galizia fundazioak sustatzen du, bilbao ekintza udal erakundearen eta getxoko udalaren laguntzarekin.

Programa honen xedea garapen profesionala da. Horretarako, aurrez aurreko saioak eta banakako tutoretzak ematen dira, eta musikaren industriaren sektoreko hizlari eta irakasleak izaten dira bertan. **Askotariko proposamen artistiko**ez gozatzeko aukera izango dugu: rock instrumentala, jazz edo pop estiloak lantzen dituzten taldeak jotzen duten taldeak, eta baita musika elektronikoa edo metala lantzen dutenak ere.

BILBAO BBK LIVE

UZTAILAREN 9TIK 11RA

KOBETAMENDI

Hiru egunez kobetamendira lekualdatuko gara, **pop-rockaren egungo talde nagusi**en zuzeneko kontzertu handiez gozatzeko.

Musika-ekitaldi hau udalak sustatzen du, last tourrekin elkarlanean eta bbkren babesarekin, eta nazioartean hainbat aitorpen egin zaizkio.

Aurtengo karteleko izen aipagarrienen artean daude: kendrick lamar, the killers, pet shop boys, bomba estéreo eta bad bunny.

BILBOLOOP JAIALDIA

AZAROA

Hiritarrei kultura hurbildu nahian, jaialdi honek urte bakoitzeko **talde hasiberri onenak** ekartzen ditu bilbora, bertokoak, estatukoak zein nazioartekoak. Gainera, hainbat ekitaldi eskaintzen dira doan, bilboko lokal batzuetan.

BBVA FUNDAZIOA

Kulturaren bultzada da bbva fundazioaren helburuetako bat. Gaur egungo arte adierazpenak ditu ardatz, batez ere, eta bilbo hirian egitarau oparoa zabaltzen du:

- **Musika garaikideko kontzertuen x. Zikloa**, san nikolas eraikinean. Estetika eta estilo askotarikoak aurkezten dira. Maiatzaren 5era arteko egitaraua.
- **Opera**: bbva fundazioa abao-olbe elkartearen opera denboraldiaren babesle nagusia da. Bi obra hauek izango dira ekarpen nagusiak: "*herbeheretar alderraia*", richard wagner egilearena, eta *'la fanciulla del west*', giacomo puccini autorearena.

Ondarea eta identitatea

Deskubritu gure historia aberatsaren kolorea

BILBOKO UDAL ARTXIBOA

Udal Artxiboan, administrazio-espedienteak ez ezik, beste mota batzuetako dokumentuak ere kontsulta daitezke, esate baterako, argazki-bildumak, planoak, kartelak eta era bateko eta besteko dokumentu grafikoak, udal funtsari eta eman dizkioten edo eskuratu dituen beste funts batzuei dagozkienak. Halakoak dira, adibidez, Ricardo Bastida arkitektoarena eta *La Gaceta del Norte* egunkari desagertuaren argazki-funtsa. Gainera, Interneteko sarearen bidez, Udalbatzaren agiriak eskura daitezke (1800 eta 2001 urteen artekoak), udal memoriak, izendegiak, estatistika-buletinak eta *Bilbokale* datu basea ere bai, Bilboko kale-plazen izen historikoak ikusteko aukera ematen duena. Halaber, *Eraikuntza Espedienteak* izenekoak hiriko eraikinetan egindako lan handienei buruzko informazioa jasotzen du. Hiriaren historia ezagutzeko bilduma oso bat.

BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA

Foru Aldundiaren Agiritegiaren helburua da Bizkaiko dokumentazio historiko guztiaren gordailua eta babeslekua izatea, jatorria eta euskarria edozein delarik, hiritar guztien eskura jarriz, legeak dokumentu historikoetarako eta haien kontsultarako ezartzen duen muga besterik ez duela. Agiritegia 1990etik aurrera eratu zen, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren funtsak bilduta. Beste alde batetik, Bizkaiko Korrejidorearen, haren tenienteen eta XX. mendearen aurreko beste erakunde judizial batzuen funts judizialak, horrela hitzartu duten lurralde historikoko udalen funtsak, sakabanatuta zeuden notario-protokolo batzuk, jatorriz Bizkaian zeuden hainbat erakunde eta enpresaren materialak eta Bizkaiko familia batzuen artxiboak.

EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

Euskadiko Artxibo Historikoa Bilboren erdigunean zabaldu zen 2014an, eta Euskadiko memoria historikoaren zatiak barne hartzen ditu: paperezko altxorrak, digitalizatuak eta artxibatuak. Eraikinak dokumentu ugari gordetzen ditu, besteak beste, lehen Eusko Jaurlaritzako kideen arteko gutun-korrespondentzia, txostenak eta abar. Baita partikularren dokumentuak ere, euskal gizarteak denboran zehar izan dituen bizimoduen erakusgaiak.

Bi funtzio ditu, batez ere: Eusko Jaurlaritzak sortutako dokumentuak gordetzea eta euskal herritarrek banaka nahiz kolektiboki sortutako dokumentu oro jasotzea.

ONDARE ARETOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren areto honek 400 metro koadro ditu erakusketetarako, eta erakundeak berak ekoiztutako zein beste batzuek antolatutako erakusketak hartzen ditu, hainbat gairen gainekoak, baina arreta berezia jarrita gure kultura-ondarearekin lotutakoetan.

BILBAINADA LEHIAKETA

DEIALDIA APIRILEAN

Udalak sustatzen duen lehiaketa honek, Radio Nervión eta TeleBilbaorekin elkarlanean, Bilboko herri-kantak bultzatzeko helburua du. Konposizio berrietarako deialdia apirila eta ekaina bitartekoa da, sariak Aste Nagusian banatzen dira eta irabazle suertatu diren bilbainaden CDa aurkezteko gala urte amaieran egiten da Arriaga Antzokian.

DANTZA PLAZETAN

URTE OSOAN ZEHAR

Euskal dantzen, kalejiren eta erromerien erakustaldiak, Udalak Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin elkarlanean antolatuak, eta tokiko talde hauen eskutik emanak: Salbatzaile, Gaztedi, Ondalan, Bihotz Alai, Beti Jai Alai, Ibai Arte, Deustuko Folklore Taldea eta Batasuna Arraizbide Dantza Taldea. Kale eta plaza hauetan izaten dira emanaldiak: Santiago, Aita Donostia, San Pedro, Zumarraga, Arangoiti, Elorrieta, Ibarrekolanda, Deustuko Erribera, San Ignazio, Zorrotza, Areatza eta Arriaga.

LORALDIA JAIALDIAREN VI. EDIZIOA

MARTXOAREN 10ETIK 29RA

Loraldia Kultur Elkarteak antolatzen du. 2014an sortu zen, Bilbon kultur adierazpen guztiak **euskaraz garatzen dituen jaialdi** bat izateko asmoz. Udaberrian, hainbat astez, ekimen berritzaile eta askotarikoak garatzen dira euskaraz, adin guztietako jendearentzat eta arlo guztietan: Antzerkia, dantza, musika, literatura eta abar.
Aurten, gure kulturaren izen ospetsuez gain, erronka berri eta berritzaileak izango ditugu. Askotariko jarduerak izango dira: Musika ikuskizunak, antzerkia, dantza, liburu-aurkezpenak, irakurraldiak eta abar.

BASQUE FEST

APIRILAREN 8TIK 12RA

Bilboko Udalak antolatzen du Basque FEST izeneko jaialdia, eta **Euskal Kulturaren Jaialdia** dela esan dezakegu. Horren bidez, tradizioa eta abangoardia uztartu egiten dira eta 200 jarduera inguruko egitarau oparoa aurkezten da, denak doakoak, adin guztietako jendeak gozatzeko.
Sei tematika bereizten dira: Musika, Kultura, Zinema, Sport, Gourmet eta Market.
Erakusketak, zinema, artisautza, kale-animazioa, haurrentzako jarduerak, herri kirolak, produktu eno-gastronomikoen dastaketa eta salmenta, dantza eta kontzertuak.
Hori eta askoz gehiago aurki daiteke Basque FEST jaialdiaren barruan, hiriko hainbat lekutan.

UDABERRIKO BERTSO SAIOAK

MAIATZA – XXXVI. EDIZIOA

Santutxun maiatzeko larunbatetan egiten diren bertsolarien ekitaldien programa honen 36. edizioa, **puntako bertsolarien partaidetzarekin**.
Udalak antolatuta, Santutxuko Bertso Eskolarekin elkarlanean.
Bizkaiko hiriburuan euskara eta euskal kultura sustatzeaz gain, Udaberriko Bertso Saioak ekimenaren helburua zera da: euskaltzaleen arteko topagune izatea eta Santutxuko Bertso Eskolaren lana garatzea.

BILBAO IZAN

Bilboko ondare historikoa sustatzeko eta zabaltzeko udal programa. Hiriko auzoetan zehar ekimen hauek garatzen dira:

- kaleko **bisita gidatuak**, maiatzean, ekainean, uztailean eta irailean.
- Sare sozialen bidez hedatutako bideoen **Txio ta Txio** edizioa, Bilboko auzo batzuetan eta besteetan bizitako pasadizoak eta abar ezagutzera emateko
- **Argazkineta**, auzoetako historia garaikidea testigantzen bidez eta auzokideek eurek emandako dokumentu eta irudien bidez jasotzeko baliabide gisa.

BIRA

BIRA proiektua 2016an sortu zen, bereziki, euskaraz egiten diren kultur adierazpenen aldeko herri ekimen gisa. Sortzaileekin elkarlanean aritzea da xedea, batez ere gazteekin, eta era bateko eta besteko publiko eta sinergiak sortzea. Kultura arloko edozein jarduera garatzeko pentsatua dago: kontzertuak, antzezlanak, tailerrak, aurkezpenak, literatur solasaldia eta abar, Zazpi Kaleetako hainbat elkarte eta eragilerekin elkarlanean.
Hauek dira urte honetarako proposamenak:

- Formatu txikiko antzerkiko **Lautan Hiru** Jaialdia, otsailean.
- **Bertso-Erronda**, bertsolari gazteen jaialdia, otsaila eta martxoan.
- Musika akustikoko **Redstone Soluk jaialdia**, urritik abendura.

EUSKARAREN ETXEA

Bilboko San Ignazio auzoan dago eta euskarari buruzko gune espezializatu bat da, eta bertan dago Euskararen Interpretazio Zentroa, munduan bakarra.
Euskararen Interpretazio Zentroa. *Euskararen bidaia* irudikatzen duen tren geltoki bat da. Bertan, euskarari buruzko edukiak erakutsi eta azaltzen zaizkio bisitariari, modu atsegin eta zuzenean. Bisita gidatuak egiten dira, aurrez hitzordua eskatuz, eta euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egin daitezke.
Adin guztietako jendeari zuzenduta dago. Euskarari buruz gehiago jakin nahi duen orok bisita dezake. Horretaz gainera, taldeek ere eska dezakete bisita, esaterako, euskaltegiek, turista taldeek edo elkarteek.

GOGORA

MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA

Organismo autonomo administratiboa. Bere funtzio nagusia memoria eta bizikidetzari dagozkion politika publikoak bultzatzea da. Gainera, bizikidetza demokratikoaren oinarrien gainean eraikitako printzipio eta balioen defentsa lana egiten du, ondare kolektibo garrantzitsua denez gero.
Eusko Jaurlaritzaren liburutegi sarearen barruan integratuta dagoen liburutegi publiko bat dauka.
Maria Diaz Harokoaren kalean dago, 3. Zenbakian.

DANTZAK ESKOLETARA

IKASTURTEAN ZEHAR

Eskola publikoetan ematen diren ikastaroen barruan **euskal dantzen pausuak** marrazten ditugu, Udalak Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin daukan elkarlanari esker.

Jaiak eta Aisia

Kolore leherketa bat herritar guztien gozamenerako

INAUTERIAK

OTSAILAREN 20TIK 25ERA

Desfileak, txarangak eta zalgurdiak, batez ere, Alde Zaharrean eta On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusian, **Farolinek** (bere izaera "botxeroaz" harrotzen den eta bere jarduera profesionala dela-eta nabarmentzen denbilbotarra) eta **Zaranbolasek** (bilbotar lasaia, ezerk eragiten ez bizia aldatzen ez diona) lagunduta. Jai Batzordeak aukeratzen ditu pertsonaia horiek. Egun horietan hainbat kultura-jarduera antolatuko dira: Kontzertuak, antzerkia, haurrentzako tailerrak, mozorro lehiaketa, dantzak eta abar.

GAU ZURIA

EKAINAREN 19TIK 20RA

Hiria bereziki dotore eta argituta ikusiko dugu bi egunez. Gau Zuria izeneko arte adierazpenak abangoardia, argia eta teknologia uztartzen ditu.

ASTE NAGUSIA

ABUZTUAREN 22TIK 30ERA

Jaialdien jaialdia. Era askotako jarduerez beteriko bederatzi egun, den-denak doakoak eta gehienak kalean. Gustu guztietarako **100 bat musika-jarduera** eskaintzen dira Bilboko hainbat tokitan, egungo taldeetatik bilbainada klasikoetara; **su artifizialek** zerua argiztatzen dute gauero; **kaleko antzerkia** handientzat eta txikientzat; sukaldaritza arloko tradiziozko lehiaketak; pilota, arrauna, herri-kirolak eta abar.

Senitartekoekin edo lagunekin, egunez edo gauez, gozatzeko jarduerak dira denak. Eskaintza zabala eta askotarikoa, eta beti honako balio hauei lotuta: aniztasuna, kalitatea, parte-hartzea, nortasuna, emakumeen eta gizonen eta euskararen presentzia orekatua. Azken batean, hiri ireki eta parte-hartzaile bateko jaietan bertokoek eta kanpotik datozenek goza dezaten.

ERREGE MAGOEN DESFILEA

URTARRILAREN 5A

Erregeek desfile tradizionala egingo dute Bilbon, Kale Nagusian eta Buenos Aires kalean, Udaletxeko Arabiar Aretora heldu arte.

BELAREN DESFILEA

ABUZTUAREN 23AN

Balea eta beste itsas animalia batzuek Bilboko Kale Nagusia zeharkatuko dute abuztuaren 23an, igandea, Aste Nagusian.

FAIR SATURDAY

AZAROAREN 28AN

Bilbon 2015ean hasi zen martxan mugimendu hau, gizarte osoa kulturaren eta artearen inguruan mobilizatzeko helburuarekin. Azaroko azken larunbatean, *Black Friday* egunaren biharamuna izaten da. Parte hartzen duten kultur ekitaldien balioaren zati handi bat kultur erakundeen eta artistek eurek aukeratutako kausa baten alde bideratuko da. Azken urtean, Fair Saturday 13 leku ofizialetan egin da eta ia 800 kultur ekitaldi burutu dira -gizartean eragina izan dutenak-, munduko 120 hiritan.

AZKUNA ZENTROA, BILBOKO ALONDEGIA

GABONAK ARTE – ESPERIENTZIA ARTISTIKOAK HAUR ETA FAMILIENTZAT

ABENDUAREN 26TIK URTARRILAREN 4RA

Kultura garaikidera irekitako leiho bat da, belaunaldi arteko ekintzak eta elkarren arteko errespetua eta tolerantzia sustatzeko. Haurrei zuzendutako eremu ludiko batean egiten da.

Egun horietan, Azkuna Zentroa artisten eta familien arteko topagune bihurtzen da. dramaturgia, keinua, dantza, hitza, musika, arte bisualak edota digitalak erabiliko dituzte inguruan dugunaren gaineko beste ikuspegi bat proposatzeko.

OLENTZERORI ONGI ETORRIA EGITEA

ABENDUAREN 23A ETA 24A

Abenduaren 23an helduko da Olentzero Bilbora, opariz beteta, bere pottoka erraldoi baten gainean eta segizioak lagunduta: bere lagun Mari Domingi antzara baten gainean, eta Basajaun triziklo handi-handi batean. Gainera, zaldiko-maldikoa eta Galtzagorriak ekarriko ditu.

Iluntzean agertuko da Moyua plazan, modu magikoan, eta Galtzagorrien taldea lagun izango du Arriaga Antzokiraino. Bertan emango du gaua. Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingik haur guztien eskakizunak jasoko dituzte. Gero, arratsaldean, Bilboko auzoetan zehar ibiliko dira, gauez lanean jo ta ke hasi aurretik.

Hurbileko kultura auzoetan

Kultur ikuskizunak auzoetara iritsiko dira, hiriaren azken bazterra ere koloreztatzeko helburuz

BILBO BARRUTI ESZENIKOA

Bilboko Udalak antolatutako zenbait ekimenek hiriko barruti guztietara hurbilduko dituzte arte eszenikoak:

- **BILBOKO ZIRKUITUA**: Bertako taldeek antzerki eta dantza emanaldiak egingo dituzte urtarriletik apirilera eta irailetik abendura, barrutietako udaltegietan. Hirian bertan sortutako proposamen berriez gozatzeko aukera bikaina.
- **ERREKALDEKO VIII UMOREZKO ANTZERKI ERAKUSTALDIA:** Errekaldeko udaltegian, otsaileko ostiraletan.
- **ESZENA KALERA**: Kaleko arteen zirkuitua Bilboko auzoetan, uztaila eta iraila bitartean. Zirku eta clown emanaldiak, magia, dantza, kale antzerkia, eta abar. Adin guztietako jendearentzat.
- **XVI. MAGIA TOPAKETAK:** Hogei mago inguru bilduko dira, tokikoak zein estatu eta nazioarte mailakoak. Maiatzean zehar adin guztietako jendearentzako ikuskizunak izango dira Otxarkoaga eta Txurdinagako plaza eta kaleetan, eta Otxarkoagako udal zentroan.

Seigarren urtez jarraian, Amateur Magia Lehiaketa bat antolatuko da. Hautatutako pertsonek Otxarkoagako Udal Zentroan egingo den amateur gala batean parte hartuko dute.

- **CLOWN ZORROTZA**: Clown emanaldiak maiatzeko bigarren asteburuan, Zorrotzan.
- **ZIRKUALDE- ERREKALDEKO XI. ZIRKU JAIALDIA**: Zirkuko arteen jaialdia, ekaineko lehen asteburuan, Errekalden

BILBO MUSIKA BARRUTIA

Herritarren entitate zenbaiten laguntzari esker ere, Udalak musika hiriko bazter guztietara eraman ahal izango da:

- **BILBO JAZZ BARRUTIA**: Jazz kontzertuen zikloa, udaltegietan, otsailaren erdialdetik martxoaren erdialderako ostiraletan, Bilbaina Jazz Club elkartearekin elkarlanean.
- **MUSIKA IKASTAROAK:** Gitarra, baxua, bateria, musika-informatika eta home-studio eta txalaparta ikasteko aukera, Otxarkoagan, ikasturtean zehar, Tendel-Tular elkartearekin lankidetzan.
- **MUSIKA ZIKLOAK:** Abandoko barrutian 3 musika ziklo hauek antolatzen dira urtean zehar:
  - **POLTSIKO MUSIKA**, bost kontzertu martxoan zehar, hainbat musika genero lantzen dituzten bertako taldeekin.
  - **MUSIKA DIBERTIGARRIA DA,** kontzertu didaktikoak, maiatzean.
  - **MILA MUSIKA HARIA,** gitarra eta bestelako hari-instrumentuez gozatzeko aukera. Azaroan hamaikagarren edizioa izango da.
- **BARRUTIAK KANTARI:** Abesbatzako musika kontzertuen zikloa Bilboko barruti guztietan maiatzetik ekainera, hiriko ia abesbatza guztien partaidetzarekin.
- **XARMA DUEN ITSASADARRA (UNA RÍA CON DUENDE):** Flamenkoa ardatz duten topaketak. Prestakuntza saioak eta artista eta konpainia ospetsuak Ibaiondoko barrutian, irailean.
- **BAZTER FEST #6:** Emakumezkoen hip-hop jaialdia, San Frantziskon,Eskina Femenina taldearekin elkarlanean.
- **MUSIKAUZO**: Fanfarreak, kaleko bandak, folk musika, jazza, marching band taldeak, batukada taldeak, dantzatzeko musikako orkestrak, DJak, trikitixa eta funkia izango ditugu, hiriko barruti guztiak errimoz betetzeko. Maiatzetik ekainaren amaierara.

BILBO BARRUTI BISUALA

Udal ekimen hauei esker, ikusmen-arteak ere hiriko barruti guztietan egongo dira:

- **IKUS-ENTZUNEZKO IKASTAROAK:** Reflex kamera hartu eta bideo edizioa egiteko, Otxarkoagan, ikasturtean zehar. Tendel-Tular elkartearekin elkarlanean.
- **EXPODISTRITO**: Tokiko artisten pintura eta argazki erakusketa artistikoak udal zentroetan, urte osoan zehar, uztaila eta abuztuan izan ezik. Hiru hileroko katalogo txiki bat argitaratzen da, erakusketen berri emateko.
- **UDAKO ZINEMA:** Familia osoarentzako zinema saioak kalean, barruti guztietan, uztaila eta abuztuan. Hainbat generotako film berriak emango dira, baita klasikoak ere. Euskal zinema, europarra eta nazioartekoa izango dugu; gainera, egileak bertan izango dira batzuetan. Saio guztien aurretik euskal film labur bat emango da, eta, jarraian, film luzea.

BILBO AISIA BARRUTIA

- **DANTZAGARRIAK:** Urte osoan zehar Otxarkoagako udaltegian, La Casillan, eta abar.
- **HARRAPAZANK:** 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako kultur eskaintza erakargarria. Udaltegietan eta BilboRocken antolatzen dira jarduerak, otsailetik maiatzera, euskararen erabilera sustatzeko asmoz.
- **IKUSI ETA IKASI:** Euskaraz egindako kulturako, heziketako eta aisiako zirkuitua, 4 eta 8 urte arteko neska-mutikoentzat eta gurasoentzat, otsailetik maiatzera, jarduera ugari eskainiz (antzerkia, ipuin-kontalariak, tailerrak, gurasoentzako hitzaldiak) udaltegietan, Euskararen Etxean, El Carmen aretoan eta Viuda de Epalza, Iruarteta eta Zamakola ikastetxe publikoetan.
- **DARABILBO:** Bilboko Udalak eta Bilboko Euskaltegien Sareak antolatutako egitaraua. Helburua aisialdian euskara sustatzea da. Kultur agenda askotarikoa proposatzen da, euskaraz: dantzak, ibilbide turistikoak, tailerrak, bisita gidatuak, gastronomia, eta abar.
- **ISTORIO BIZIAK:** Alabazan taldearekin elkarlanean, Udalak ahozko narrazioaren eta kontaketaren artearen inguruan antolatzen du ekimen hau. Uribarrin egiten da, otsailaren 11tik 24ra, haur, gazte eta helduei zuzenduta.
- **BIDAIARIEN TXOKOA:** Bidaia, abentura eta kulturen mundua gizarteratzeko helburua duen egitaraua. Horretarako, hitzaldi, proiekzio eta erakusketak antolatzen dira. Martxoan, Begoña eta Santutxuko udaltegietan.
- **ARANGOITIKO EUSKAL JAIA:** Maiatzeko lehen hamabostaldian, familientzako musika emanaldiak, abesbatzak, kalejirak, euskal dantzak, alardeak eta txotxongiloak izaten dira.
- **SANTUTXUKO KOLOREA**: Ekaineko asteburu batez Santutxun egiten den folklore jaialdia, Udalak eta Gaztedi Dantzari Taldeak elkarlanean antolatua.
- **IKERTZAILEEN EUROPAR GAUA:** Zientzia gizarteratzeko proiektua. Irailaren 27an eta 28an egingo da Deustuko udaltegian, eta Europako 300 hiri baino gehiagotan ere egingo da aldi berean. Horrela, ikerketa eta bere protagonistak herritarrei hurbilduko zaizkigu, euren lana, gizarteari egindako ekarpenak eta eguneroko bizimoduan duten eragina ezagutu ditzagun.
- **PLAZARIK PLAZA**: Folklorearen sustapenerako beste programa bat, hau Basurtuko auzoan, urriko lehen hamabostaldian, Beti Jai Alai Dantza Taldearen eta Bilboko Udalaren eskutik.
- **KULTUR TAILERRAK:** Arte aplikatu, arte plastiko, artisautza, arte bisual eta abarrekin erlazionatutako diziplinak ikasteko aukera, euskaraz zein gaztelaniaz, Bilboko auzoetako 20 udaltegitan.
- **GAU IREKIA**: Abenduko arratsalde-gau batean, San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoetako kaleetan eta zenbait txokotan egingo diren gizarte- eta kultura- jarduerak, mota guztietako talde eta pertsonen partaidetzarekin, euren jarduerak sortuz edo beste batzuez gozatuz.

ALAZNE LÓPEZ ETXEBARRIA IV. KULTUR MEMORIALA

MAIATZAK 30

Dantzan eta musikan zentratutako ekitaldia. Zorrotzan egiten da. Laugarren urtez jarraian, Kiroldegiko hockey pista eszenatoki bihurtuko da. Bertatik, Euskadiko, estatuko eta nazioarteko artistek musika eta dantza emanaldiak eskainiko dituzte, modalitate guztietan.

Alazne López Etxebarria Zorrotzako dantzari profesionala zen. Gazte hil zen, eta bere heriotzaren ondorioz sortu den ekitaldi honen helburua da jende guztiarengana kalitatezko musika eta dantza gerturatzea. Gainera, Zorrotzako elkarte eta taldeen parte-hartzea ere sustatu nahi da.

KULTUR GABONAK

AZAROA - ABENDUA

Gabonetako eskaintza askotarikoa, Udalarekin eskutik. Ehun ekitaldi eta ikuskizun inguru izaten dira guztira: kontzertuak, erakusketak, folklorea eta zuzeneko musika. Gainera, hiriko zortzi barrutietan ziklo tematikoak egiten dira:

- **1. BARRUTIA - DEUSTU:** Euskal kulturaren eta euskararen inguruko jarduerak.
- **2. BARRUTIA – CASTAÑOS:** Clown artearen inguruko zikloa.
- **3. BARRUTIA – OTXARKOAGA:** Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako pertsona nagusien elkarteen barruko abesbatza eta antzerki taldeen emanaldiak.
- **4. BARRUTIA –SANTUTXU:** Umore monologoen zikloa.
- **5. BARRUTIA – IBAIONDO:** Kaleko antzerki eta animazio ikuskizunak.
- **6. BARRUTIA – ABANDO:** Ipuin-kontalariak euskaraz.
- **7. BARRUTIA – ERREKALDE:** Zirku garaikideko ikuskizunen egitaraua.
- **8. BARRUTIA –BASURTU:** Antzezlan Laburren zikloa.

Eskaintza osatzeko, **Gabonetako Kontzertu Koralak** izango ditugu. Bilboko hogeita hamar abesbatzek, gutxi gorabehera, airean musika-notak marraztuko dituzte kontzertu ziklo honetan, abenduan hiriko barrutietako parrokietan.

Urteko programazio honen etorkizuneko edizioak posta elektronikoaren bidez jasotzeko aukera eskaintzen dizu Bilboko Udalak, eta, orobat, Bilbao Kultura hileko agenda jasotzeko ere, Bilboko kultura eta aisialdiko jarduerei buruzko informazio eguneratua eta hedatua eta antolatzen dituen jarduera guztien uneko informazioa eduki ahal izateko.

Agenda formatu digitalean baino ez baduzu jaso nahi, bidal iezaguzu mezu elektronikoa agendakulturala@bilbao.eus helbidera zure datu pertsonalekin edo bidali zure datuak eta lehentasunak bilbaokultura.eus web orrian prestatutako atalaren bidez.

BILBOKO UDALAK ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE, EUREN LANA, DIRU-LAGUNTZA, BABESLETZA ETA MOTA GUZTIETAKO LAGUNTZEN BIDEZ, PROGRAMAZIO HAU AHALBIDETZEN DUTEN ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PUBLIKO GUZTIEI ETA ERAKUNDE PRIBATU ETA HERRITARRENEI.